

ttipi-ttapa



HAUR ESKOLAK DUINTASUN ESKE

Ratioak jaitxi eta soldatak igotzeko eskatzen dute Nafarroako haur eskolek, kalitate oneko zerbitzua nahi dutelako. / 8

Bardoak finalaren atarian

Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketaren finala martxoaren 28an jokatu da Lizarran, eskualdeko ordezkariarekin. / 25

SINADURAK



ZOKKETA / 56



«Inguruan herri asko dago liburutegi-zerbitzu egonkorrik gabe eta hori arintzeko sortu dugu LAGA Liburutegi Ibiltaria»

Otsail hondarrean paratu zuten martxan Leitzu, Areso, Goizueta eta Aranoko liburutegi ibiltaria. Horri buruz aritu da Harkaitz Delgado Leitzuko liburutzaia. / 11



Haur eta gazte literaturaren lehenbiziko azoka Saran / 43

BERA LESAKA

Agenda 2020

MARTXOA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

20 ORTZIRALEA	DOKUMENTALA Elkarrizan 18:00 Kultur Etxean. Iraupena 30 min. BERA
22 IGANDEA	ANTZERKIA Erlautza (Vaiven Produzioak) 18:00 Kultur etxean. Iraupena 70 min. Sarrera 7 € (aurresalmenta: Errekalde eta Katakua) Antolatzailea Soldatz Berako Emakume Talde Feminista. Laguntzaileak Nafarroako Antzoki Sarea, Berako Udala eta Berako Kultur Batzordea. BERA
27 ORTZIRALEA	INGELESEZKO IPUIN KONTALARIA Looking for Betsy (Alexia Papantchev) Adina 6 urtetik goiti. 18:00 Liburutegian. Iraupena 45 min. Antolatzaileak Berako herri liburu. eta Berako Kultur Batzordea. BERA
27 ORTZIRALEA	HITZALDIA Zertan da euskararen erabilera Bortzirietan? Bortzirietako kale-erabileraren neurketa: emaitzen aurkezpena eta gogoeta partekatua (Maialen Iñarra) 18:30 Beralandetan Iraupena 90 min. BERA
28 LARUNBATA	DANTZA Helduentzako dantza garaikidea (Ana Irazusta) Inprobisazioa eta koreografia landuko dira. Sarrera doan. 11:00-13:00 Kultur etxean. Argibide gehiago adurlaranja@hotmail.com BERA
29 IGANDEA	UDABERRIKO KONTZERTUA Lesakako Musika Banda 11:00 Andra Mari Egoitza LESAKA
29 IGANDEA	BIDEO EMANALDIA "Hiru aldiz Euskara" 18:30 Txokobikoa Antolatzaileak Lesakako Euskara Batzordea LESAKA
16-27	ERAKUSKETA Oztoporik gabe, Hobe! Astelehenetik ortzirialera 14:00-20:00 Liburutegi publikoan. LESAKA

IKASTAROA

ZIRKO TAILERRA

Eguna apirilaren 14, 15, 16 eta 17.
Adina LH1-6.
Ordutegia Bi talde:
 LH1,2,3: 10:15-11:15 / LH4,5,6: 11:30-12:30
Prezioa 8 € (plaza mugatuak).
Izena emateko epea apirilaren 1a arte.
Antolatzailea Labiaga ikastola.
Argibide gehiago www.berakoagenda.eus

BERA

AUDITEK
Centro Auditivo - Entzumen Zentroa

PROBA ITZAZU GURE

AUDIFONO IKUSEZINAK

ENTZUMEN
GALERAREN
AURKAKO
2020ko
PREBENTZIO
KANPAINA

TXIKIAK,
EROSOAK ETA
ERABILTZEKO
ERRAZAK

ENTZUMENAREN DOAKO
BALORAZIO OSOA

Aurrez eskatu zure zita

IRUN

943 633 305

Colon Pasalekua, 27
 (Turismo bulegoaren ondoan)
 L-V: 9.00 a 13.00 | 15.30 a 19.30.



NIRE TXANDA

MAIALEN IANTZI DANBORIENA

Gero

Egingo dut, egingen dugu, bihar, etzi... maiz aditzen ditugu gure egunerokoan. Eskuarak etorkizuna adierazteko aukera ematen digu baina hori ez da hizkuntza guztietan gertatzen. Zenbait hizkuntza indigenetan, etorkizun gramatikala ezin dute adierazi; ez daukate horretarako hizkuntza-baliabiderik. Iraganera begiratu eta oraina eraikitzen dute. Beharbada, beraien etorkizuna arras lauso ikusten dute.

Eta igual ailegatuko ez denaren kezkatzen ito baino, orainean pausatzen dituzte beraien hankak. Eta hizkuntzak ere, horrelaxe egiten du.

Guri kontrakoa gertatzen ari ote zaigu? Egingen dugu-narekin betetzen zaigu ahoa: udan hilabeteko bidaia egingen dugu Tailandiara, zer gogoak astebururako!... Ez al zaigu atzentzen ari momentuan egiten duguna gozatu behar dugula? Eguneroko gauza tikiak dastatzen ote ditugu?

Axularrek ere aurreikusi zuen gertatzen ari zena eta aholku garbia eman zigun: ez utzi biharko gaur egiten ahal duzuna. Igual bada ordua, gibeletik izan genituenei kasu egin eta gerokoa geroko uzteko.

«EGUNEROKO GAUZA TIKIAK DASTATZEN OTE DITUGU?»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zerbait larria gertatzen ari da

Eibar eta Errealaren arteko futbol partida da azken hilabeteko ezinegonaren metafora. Zaldibarko zaborteigiko eroriaren eta suteen ondorioz gibeleratu zuten lehenik airea ezin zelako arnastu eta azkenean, ate itxiek jokatu den ligako lehen partida izan da, koronabirusaren beldur. Gizonezkoen lehen mailako futbola geldiarazteko gai bada, zerbait larria bada hor.

NABARMENTZEKOAK



JON REKONDO
AIZKOLARIA



JOXE ANGEL ZUBIRIA
OMENDUA

Leitzako aizkolariak binakako bere lehenbiziko txapela jantzi zuen martxoaren 7an. Binakako Urrezko Aizkora Txapelketan txapeldun izan da, Larrañaga lagun duela. Bejondeizula!

Joan den abenduan zendu zen Joxe Angel Zubiria lesakarrari omenaldia eskainiko diote apirilaren 4an herrian. Mendi irteera, ekitaldia, otorduak eta kontzertua antolatu dituzte.

ATZERA BEGIRA



2010-03-18 · TTIPI-TTAPA · 514 zk.

Haur eskolak hizpide duela hamar urte

Aldizkari honetan bezala, duela hamar urte ere 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hartzen dituzten haur eskolak izan zituen hizpide TTIPI-TTAPA aldizkariak. Bildutako datuen arabera, Baztan, Bera, Doneztebe eta Leitzako haur eskoletan 200 bat umek pasatzen zituzten gurasoen lanordua. Bertze aunitzek, ordea, atautxi-amatxiengana jotzen zuten –baita orain ere– eta hori ere jaso zuen TTIPI-TTAPAREN erreportaje hark. Hala, biloben umezain aritzen ziren Urdazubiko Mikeli Azkarraga eta Goizuetako M^a Pilar Eskuderoren lekukotzak bildu zituen. Biek ala biek lana «gustura» egiten zutela aitortu zuten. Sarako kasuaren berri ere agertu zen, eskolako haurrentzako baitzen haurtzaindegi zerbitzua.



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakal
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larraide,
Juan Mari Barriola, Inigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuetako, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2020ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 39€
Leitza 28€
Hego Euskal Herria 47€
Iparr Euskal Herria, Europa 86€
Amerika eta Australia 139€

Nafarroako
GobernuaGobierno
de Navarra



KOLABORAZIOAK

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

Noren Eliza da hau?

Eliza Katoliko du bere izena. Ez zaizkio aunitz urte falta, bi milara ailegatzeko. Eta gizasemeen Elkartea dela erraiten ahal dugu. Izan ere, gizasemeak baitira Elkartearen eginkizun nagusiak beren gain dituztenak, Erromako apezpikua Buru nagusi dela, eta munduan zehar ehunka apezpiku, hainbat apezak lagunduta. Horretarako espres eta bereziki ordenatutako gizasemeak.

Eta emaztekiak? Ezin ukatu hauek ere Eliza Elkarteko partaideak direla. Gaur egun beraiek hartzen dute parte handiena elizako bilkuretan. Eta eurek jasaten dute tenplu eta inguruko garbitasun gehien: solairua, bankuak, arropa, belarra eta loreak. Eta atzendu gabe, noski, kantatzea, organoa jotzea, katekesia, eta zenbait gehiago. Alabaina, milaka apezpikuren artean emazteki apezpiku bat bakarrik ez.

SINODO izeneko Batzarra bildu du berriki Aita Santuak munduko apezpiku multzo batekin. Elizaren historian eta etorkizunean ezaugarri nabarmena uzten ahal zuen batzar horrek. Hau da, oker ez banago, bertarako pentsatua zegoen gai berezia: gizon ezkonduak ere apez izatea, eta emakumeak diakono. Proposamenak esperantza eta poza biztu zuen eliztar frankoren artean. Baina esperantza itzali ere

**«JENDARTEAN HARTU-
-EMANAK ALDATU DIRA
EMAKUMEARI DAGOKIO-
NEZ. BAINA ELIZAN?»**

da.

Historiaren 21garren mendean gaude. Mende hauetan jendarteko hartu-emak nabari aldatu direla erraiten ahal dugu, emakumeari dagokionez, adibidez. Elizan, ordea? Jendarte zibilean kargu nabarmenak bere gain hartzea gaur egun normal samar ikus daitekeen bezala, diakono bezalako zerbitzu apala eskuratzea ere ez zaio onartzen emakumeari Elizan.

Zer erranen luke gaur egun Nazareteko Jesusek? Lehenbiko izan nahi duena ttikien eta zerbitzari izan dadila.



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Atera normaltasuna armairutik

Gaur martxoaren 9a da, astelehena, atzo kaleak hartu genituen, lelo feministak oihukatu genituen eta egunero emakumeek egiten dituzten lan isiletako batzuk lehendabiziko lerrora ekarri genituen. Txalo den-denei, mundiala da pausorik-pauso lortzen ari zaretena. Atzokoaren bestondoa izanen da, baina gaur bizitzak aitzina segitzen du eta aste hasierak gure etxera ekarri dituen bi egitegori erreparatu nahiko nioke. Bi lanak dira iraupen bertsukoak, ordubete inguru, pertsona bakarrak egiteko lanak dira biak eta prestaketa eskatzen dute, aitzinetik formazio edo/eta esperientzia izatea. Konponketa lan gisa definitzen ahal ditugu biak. Orain arte berdintsuak iduri dute, baina badaude ageriko desberdintasunak, adibidez: batengatik 90 euro ordainduko dugu eta bertzegatik bortz euro inguru. Gainera, segur aski ez dugu sobera pentsatuko horren inguruan, normaltasunaren armairuan ongi ordenatuta baitugu horrela dela, horrela izan dela beti eta akaso azaleko justifikazioen bat ere izanen dugu horrela izaten jarraitu dezan.

Galtzak jantzi ahal izatea emakumeen borrokaren ondorio izan zen, bertze garaipenetako bat izan zen etxetik kanpo lan egitea, baina gaur egun askatasunaren sinbolo izan

**«EZ DA KASUALITEA
USTEZKO NORMALTA-
SUNAREN BARNEAN
BI SOLDATA IZATEA»**

ziren galtza horien azpildurak josteagatik bortz euro ordaintzea normala da. Zer pasatuko litzateke garbigailua konpontzeagatik bortz euro ordainduko bagenu? Jostunari emakume aurpegi paratu badiozu eta garbigailu konpontzaileari gizonarena ez da kasualitatea; ez da kasualitatea ustezko normaltasun horren barnean bi soldata horiek kabida izatea. Hortxe dago koxka, normaltzat ditugun eguneroko aferetan. Hortaz, ailegatu da eguna: ireki begiak, atera normaltasuna armairutik.

11 GALDERA LABUR

KARMELO BERHO APEZETXEA ORONOZTARRA

«Txapelketetako lehiak tirria handia eragiten dit eta hori polita da»

Aurkeztu zure burua.

Oronoztarra naiz, 58 urte ditut eta nekazaria naiz.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Goizik jaiki, behiak jetzi eta etxeko lanak egiten ditut.

Zein dira zure afizioak?

Kirola gustatzen zait, pilota bereziki. Udazkenean, ehizan ibiltzera eta onddoak daude-nean biltzera gustura joaten naiz.

Kirol guztiak dituzu gustuko?

Ttikitan esku pilotan aritzen nintzen, 12 urteak arte. Ondotik, futboleko ibili nintzen eta orain paletan. Bizikletan ez naiz inoiz ibili eta motorra-ekin lotutakoak ez ditut gustuko izan.

Pilotan dabiltzan gaztetxoak entrenatzen dituzu...

Bai, herriko haurrei erakusten diet, ortziraletan bi ordutik. Badira 10-15 urte horretan nabilela. Gustura aritzen naiz.

Noiz hasi zinen palan jokatzeko?

Herrian gazterik, herri guztietan bezala. Baina orduan ez ginen herritik ateratzen. 30 urte inguru nituelarik hasi nintzen kanpora joaten...

Noiz eta non jokatu zenuen lehen-dabiziko txapelketa?

Herrian lehen-dabiziko txapelketa jokatu zenean, 1980-81ean. Herriko gazte gehienok parte hartu genuen. Horrela hasi ginen, molderik ere ez genuela. Orduetik Oronozen 33-34 txapelketa jokatu ditugu. Guztietan parte hartu dut. Gaur egun, zenbatero biltzen zarete paletan biltzeko?



Ingurukook zortzi bat lagune-ko taldea dugu eta horietarik libre dauden lau bildu eta aritzen gara, asteazkenero.

Nafarroako Paleta Txapelketan aritu zara berriki...

14. aldiz jokatu dut Nafarroako Txapelketa. Lehen eskualdeko egiten genuen, 2010etik aitzinera, berriz, partida guztiak Iruñean jokatzeko ditugu. Urteotan aldaketa handia gertatu da: orain afizio handia dago, jendea aise gehiago

prestatzen da... 65 bikote izan gara hiru mailatan.

Aurten ere irabazle izan zara...

Bai. Lauzpaborts aldiz irabazi dut. Lehiak tirria handia eragiten dit eta hori polita da. Gainera giro berezia izaten da. Finalean 200 ikusletik goiti bildu ziren Lopez frontoian...

Hurrengo txapelketa?

El Graciano Iriarte Memoria-ira apirilean. Herriko txapelketa uztailean hasiko dugu eta irailean Irurita...

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Ohe-estalkien bilduma berria eta ugaria



IRAKURLEAK MINTZO

Euskal emakume idazlea: eragile eta sortzaile

AINARA MAIA URROZ

Auxtin Zamorak behin erran zidan bezala, denok gara poetak, idazle eta sortzaile, edo bederen izan gaitezke, eta denok maila berean gainera, ez bata bestea baino gehiago. Izan gaitezke denok poeta eta sortzaile, denok baitugu behar bat garena adierazteko, nahiz eta ez argitaratu.

Eta amatasunaz ez gara mintzatu, nahiz eta gaurko euskal literaturan aktualitatezko gaia izan. Niretzat hain da gai sentibera, minbera une honetan (eta azken hamarkada osoan), ene 43 urtetan, beti izan baitut amets ama izatea, baina ene maiteak utzi ninduen, ene seme-alaben aitak alegia. Errazagoa ote da gaur egun liburu bat argitaratzea, ama izatea baino?

Nago, horregatik, ama edo sortzaile izateagatik, egon direla itzalpean euskal emakume idazleak, amatasuna sormen naturalizat jo delako, eta beraz, meritutzat jo da ama eta sortzaile izatea berezko eta esfortzurik gabe izan ez duen gizonaren lana. Horrela, aintzat hartu da eta argitara emateko eginahal handi hori. Beharbada horregatik gizonak nahi duena egin ahal izan du, baina andreak ezin izan du nahi, egin nahi zuena.

Beharbada, amatasunaren naturaltasun hori ezbaian jarri ez delako gure erreferentzia literarioak ere maskulinoak dira, bai gizonengan, bai andreengan; denongan. Femeninoa dena etxe barrurako gordez eta horrekin batera ama-hizkuntzaren balioa eta transmisioa ere intimoa da, pribatua

egin beharreko sormen-lanketa eta idazketa.

Ama izateaz haratago, izatea eta sortzea amets zuten andreak historian ez dira ulertuak izan, eta sufritu nahiz sufriarazi dute. Lou Andreas von Salomé idazleak erran zuen bezala, edozein delarik ere gure generoa (gizon edo andre izan gutxienekoa da), garenetik abiatuta, denok bilatu behar genituzke gudan kontrako sexuaren ezaugarriak, gu guztiongan baititugu ezaugarri femeninoa eta maskulinoa.

Hauek eta gehiago izan dira Bergarako UNED-etik bueltan, *Euskal emakume idazlea: eragile eta sortzaile* eztaba da literariotik, ene kotxeko bakardadean egindako hausnarketak iragan inauteri-larunbatean.

HEMEROTEKA



«Jende anitzek ez du sinesten gaixo nagoe-larri [gibel-giltzurrunetako polikistosis du]. Herentziazko gaixotasun bat da. Kiste anitz ditut; gibelean ere atera zaizkit. Konponbidea ez da kiste horiek kentzea, giltzurrunak baitira sortzen dituztenak [Transplantearen zain dago, dialisia uzteko zain]».

MAITE BIURRARENA

BERA | HITZA. 2020.03.06



«Adina baino garrantzitsuagoa da nik neuk nola ikusten dudanez neure burua. Argi dut: ikusten dudanean ez dudala mailarik hor goian egoteko, ni izanen naiz enpresari esan dion lehena. Gainera, badakit enpresak ez didala inolako presiorik eginen, beti oso ondo portatu baita nirekin».

AIMAR OLAIZOLA

GOIZUETA | BERRIA. 2020.03.04

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoaren dutenak eta
arrosez daudenak gaizki daude.

*** ARAZO HORI HAMASEI URTEKO GAZTEEN ARTEAN EMATEN DA.**
ARAZO HORI HAMASEI URTEKO GAZTEEN ARTEAN GERTATZEN DA.

Adiera aunitz ditu 'eman' aditzak, baina bada erabilera bat gomendagarria ez dena:
***Arazo hori hamasei urteko gazteen artean ematen da** moduko esapideak, adibidez.
Honela erabiltzea komeni da: 'Arazo hori hamasei urteko gazteen artean **gertatzen** da'
edo antzeko esapideen bidez.

Euskaltzaindiak erraten duen bezala, ez da zuzena '**eman**' aditzak '**gertatu**' edo '**izan**'
aditzak ordezkatzeko, gaztelaniazko '**dar**' aditzak eraginikoak.

Erreparatu adibide hauei:

- ***Futbol txapelketako azken jardunaldian sei berdinketa eman dira**
> **Futbol txapelketako azken jardunaldian sei berdinketa gertatu/izan dira.**
- ***Neska-mutikoen artean ematen diren eztabaidak.**
> **Neska-mutikoen artean gertatzen/izaten diren eztabaidak.**

Oharra: **eman = irudi izan / iduri izan / iruditu**. Adiera egokian, parekoak dira.

Adibide hauetan, erraterako:

- Horrela jauntzita sorgina ematen duzu (iduri duzu, dirudizu).
- (...) hibernatzen ari den hartza ematen du (iduri du, dirudi).
- Bengoetxea ematen du (iduri du, dirudi).

Solas-zopa

Nola erraten duzue '**oso**' zuen herrietan?

Bilatu hemen: **HAGITZ | ARRAS | ARRUNT | OSO | TXIT | ZEHAHO**

N	O	Q	I	Y	S	X	R	M	S	B	T	X	I	T
T	Q	U	C	X	P	B	C	M	N	N	C	L	J	E
H	C	L	V	I	O	B	T	J	R	O	Q	K	Y	D
L	C	P	H	K	C	Y	H	A	G	I	T	Z	W	Q
A	U	P	R	Q	A	R	H	T	I	J	X	U	C	M
G	F	K	Y	O	Z	A	R	R	A	S	D	B	K	O
G	J	X	A	S	P	U	T	L	A	Y	N	F	X	T
E	D	Y	J	H	U	A	Y	F	M	Y	J	N	A	D
F	X	G	P	V	D	O	V	H	K	E	O	S	O	A
O	U	G	X	W	B	M	H	Z	E	H	A	R	O	G
L	Y	S	G	A	R	R	U	N	T	S	M	Z	Q	W

Zein da zuzena?

Ahozkoan '**kristoren**' esapidea erabilia da, **kristo(re)n polita** edo **kristo(re)n interesantea**... Halako adibide franko aditzen dira. Baina ez dira zuzenak. '**Kristoren**' izenlaguna denez, eskuinean beti izena eduki behar du, adibide hauetan ageri den bezala:

Kristoren haserre
dauka.

Tabako horrek kristoren
buruko mina eragin
zidan.

Horregatik, honako hauek, izenarekin ez doazenez, ez dira zuzenak

- * **kristo(re)n polita** (*polita* adjektiboa da, ez izena; horren partez 'oso', 'arras', 'hagitx... graduatzailea behar luke).
- * **kristo(re)n interesantea** (*interesantea* adjektiboa da).
- * **kristo(re)n ongi** edo
- * **kristo(re)n gaizki** ez dira zuzenak ('ongi' eta 'gaizki' adberbioak dira, ez izenak).

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animate eta parte hartu! Guk ere badugu zer ikasia! Aitzineko aldizkarian ohartu gabe ***'jolastuko dugu'** idatzi genuen. Garbi utzi nahi dugu 'jolastuko gara' dela zuzena edo eskualdeko hitzei erreferentzia eginez, 'jostatuko gara' edo 'jostetan ariko gara'. Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahiko genizkieke atal honen irakurle fin guztiei!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Haur eskolak duintzeko borrokan

Ratioak jaitsi eta soldatak igotzeko eskatuz, mobilizazioak egiten ari dira azken aldian Nafarroako haur eskolak, kalitate oneko zerbitzua nahi dutelako. Baztan, Bortziriak, Doneztebe, Leitza eta Lesakako haur eskolek ere borroka horrekin bat egin dute

G. PIKABEA

Kalitate ona dute helburu, eta horretarako eginahalak eta bi egiten dituzte 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hartzen dituzten haur eskoletan. Ezinbertzekotzat jotzen dute haur bakoitzaren garapen prozesua errespetatzea, bakoitzaren beharrak eta erritmoa onartu eta zaintzea; argi baitute haurrek jaiotzen direnetik gaitasunak dituztela eta horiek garatzen utzi behar zaiela.

Bide horretan, hezitzaileak «behatzaile» eta «bidelagun» bihurtu direla diote Baztan, Bera, Doneztebe, Leitza eta Lesakako haur eskoletako profesionalek. «Jolas momentuetan haurrak libre» uzten dituzte: «espazio egoki bat prestatuz eta haurrei gai direla transmituz, haurrak bere buruaren irudi positiboa eraikitzen du, bertzeen beharrik gabe helburuak lortzean, poztasun berezia lortzen baitu». Aldi berean, haurrei hurbil daudela sentiarazten diete beraiekin duten lotura sendotuz, «haur bakoitzari behar duten eskusibotasuna» eskainiz: «bazkaria banaka emanez, paketeak edo fardelak aldatuz... Momentu intimo horietan haur bakoitzari protagonismo osoa emanez». Gisa horretara «garapen osasuntsu bat izateko haurrek behar duten segurtasun afektibo eta emozionala lortzen dutela» uste dute hezitzaileek.

Kalitatea ezin bermatuz

Horixe eskaintzen diete haur eskoletan ttikienei, edo bederen hori da nahi dutena. Izan ere, dituzten baldintzekin

«zaila» egiten zaie. Are gehiago, «ezinezkoa» dela diote: «kalitate oneko hezkuntza zein den erakutsi digute, haurrak zer behar duen ikasteko formazioa eskaini digute, baina baldintza hauekin ezin dugu hori bermatu». Eskualdeko haur eskoletako hezitzaileen hitzak dira, ezinaren ezinez, haserre daudenak. Beraiek eta Nafarroako bertze haur eskoletako langileek «aski» dela erran dute.

Nafarroako 0-3 Plataforman bildu dira haur eskolak. Aldarrikapenak, ordeak, ez dira orain

hasiak. Plataforma 2001ean sortu zen eta bide luzea egin du. Ia 20 urte beranduago ez du lortu urteetan eskatutakoa.

Joan den ikasturte hondarraz geroztik indarberrituta ari da lanean; haur eskola gehiago bildu dira mugimendura, tartean eskualdekoak, eta guztiek bat egiten duten bi eskari nagusi luzatu dituzte: ratioak jaistea eta soldatak igotzea.

Ratioak jaitsi

Europako Batzordeak aholkatzen dituen ratioetatik urruti

EUROPAK GOMENDATUTAKO RATIOEN BIKOITZAK DIRA NAFARROAN

1.200 EUROKO 11 SARI KOBRATZEN DITUZTE HEZITZAILEEK


daude Nafarroakoak. Gehiago ere bai, bikoitzak dira. European, 0 eta 1 urtekoen gelan, hezitzaile bakoitzeko gehienez lau ume gomendatzen dituzte eta Nafarroan profesional bakoitzeko zortzi onartzen dituzte. 1 eta 2 urtekoen gelan, European profesional bakoitzeko gehienez sei haur izatea aholkatzen dute eta Nafarroan hamabi; 2 eta 3 urtekoetan, berriz, European gehienez hezitzaile bakoitzeko zortzi haur aholkatzen dituzte eta Nafarroan hamasei.

Halako baldintzetan kalitate oneko zerbitzua ezin dutela eskaini azpimarratu dute: «ahal dugun guztia egiten saiatzen gara, baina beti ezin da, eta egoera larriak sor ditezke», diote Baztan-Bidasaldeko haur eskoletako kideek. Bide beretik jo dute Leitzakoek: «formazioan haurrekin banaka egoteko uneak zaintzeko esaten digute, baina ezin dugu. Gela bakoitzean tutore bat dago eta momenturen batean ume batek fardela aldatzeko beharra badu, hezitzaile hori bakarrik dago fardela aldatzeko eta gainontzeko umeei arreta eskaintzeko». Bere ustez, «Europako ratioak errespetatuko balira behaketa beste modu batekoa izanen litzate-



KRISTINA GOÑI ETXENIKE
BAZTAN HAUR ESKOLA

«Ratioak astakeria hutsa dira, ongizatea eta kalitatea bermatu nahi badugu haur gehiegi ditugu eta soldatak iragarriak dira. GKE bat garela dirudi, haurrak maite ditugu eta horregatik egiten dugu hainbertzeko lana, baina 0-3 zikloa haurtzaroko etapa garrantzitsua izanda ere, gure lana ez da baloratua».



JOSUNE IRASTORZA ALZUGUREN
BERAKO HAUR ESKOLA

«Gure esku dagoen guztia egiten dugun arren, ez da nahikoa. Kalitate oneko zerbitzua eskaini ahal izateko haur eta familien ongizatea bermatu behar dugu eta ditugun ratioekin ezinezkoa da. Aldi berean, dugun soldatak ez ditu islatzen gure prestakuntza, etengabeko formakuntza, kudeaketa eta esfortzua».



ANA MAEZTU VILLANUEVA
LESAKAKO HAUR ESKOLA

«0-3 zikloaren garrantziaz gero eta informazio eta kontzientzia handiagoa dago eta profesionalak etengabe formatzen ari gara haurrak ezaugu eta haien beharrei erantzun egokia emateko. Beraz, Nafarroako Gobernuak 0-3 zerbitzua kalitate onekoa izan dadin arduraz jokatu eta neurriak hartzeko ordua du».

ke, eta giroa bera lasaiagoa». Honela gaineratu dute Baztan-Bidasaldekoek: «ez da profesionaltasun kontua, hainbertze haurrekin ezin da, eta ez da inorentzat ona».

Hiru kudeaketa eredu

Nafarroako Gobernuak 2007an onartutako martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuarekin arautu zuen Haur Hezkuntza-ko lehenbiziko zikloa edo 0-3 zikloa. Gisa horretara, haur eskolek bete beharreko baldintzak eta hezkuntza edukiak zehaztu zituzten. Eskolen kudeaketa, ordea, udalen gain dago eta hiru modu daude horretarako: haureskola batzuk zuzenean udalek kudeatzen dituzte, bertzeak enpresa publiko baten bidez egiten dituzte eta badira enpresa pribatuen bidez kudeatutakoak ere.

Eskualdean, Doneztebe eta Leitzako haur eskolak zuzenean udalek kudeatzen dituzte, hau da, haur eskolako profesionalak udal langileak dira. Baztan, Bera eta Lesakakoak, ordea, enpresa pribatuen esku daude: udalek kudeaketa lehiaketara ateratzen dute eta horrela izendatzen dute kudeaketa lana egingen duen enpresa pribatua zein izanen den.

Soldatak igo

Baina kudeaketa eredu horiek soldatetan ezberdintasun nabarmenak sortu dituzte. Baztan-Bidasaldeko hezitzaileek kontatu digutenez, «eskola publikoetan ari direnen soldatek ez dute deus ikustekorik enpresa pribatuetan ari direnenekin. Soldaten afera errusiar mendiaren gisakoa da».

Nafarroako Gobernuak 950 eurokoa den Lanbidearteko Guttieneko Soldata baino «pika bat gehixeago» eskaintzen dio hezitzaile bakoitzaren soldatari, «bajak barne». Eta hori «hagitz gutti» dela azpimarratu dute. «Hezkuntza 1.800 inguru irabazten dute». Eta haur eskoletakoak 1.200 euroren bueltan dabilta, urtean 11 sari kobratuz eta antzintasuna kontuan hartu gabe; «enpresa pribatuetan ari direnak autonomoak direla atzendu gabe», diote. Errandakoa berretsi dute Leitzakoek: «gure kasuan, udal langileak gara eta beste egoera batean gaude. Antzintasuna kontatzen digute, eta Nafarroan hobekien gaudenetakoak izanen gara». Baina garbi dute hori ez dela bidea: «denok lan bera egiten dugunez, soldata bera jaso beharko genuke». —>



Baztan Haur Eskolan katiuskak jauntzi eta lurraren jolasean.

Baztan Haur Eskola

68 haurrekin eskualdeko haur eskolarik handiena da Baztangoa. Sei unitatetan banatuak dituzte haurrak: 0-1 urtekotan (16 haur), 1-2 urtekoetan (22 haur) eta 2-3 urtekoetan bina talde (30 haur) dituzte eta lantaldea sei hezitzailek, zuzendaria baina aldi berean hezitzailea denak, bi garbitzailek eta jangelako bi laguntzaileek osatzen dute. Onartutako haur kopuruaren muga dabilta, «dena emanda eta ezin ailegatuz», eta beraien lana errazte aldera, zuzendaria hezitzaile lanetan aritzen da. Argi dute, ordea, «hori ez dela afera. Kalitatea eta ongizatea bermatzeko Europak ezartzen dituen ratioekin lan egin beharko genuke». Berezi eskertu nahi izan dute haur eskolako familien, udal ordezkarien eta gainerako herritarren «inplikazio handia».



Berako Mukixu Haur Eskolan haur bat jolasean.


Berako Mukixu Haur Eskola

24 haur eta lau hezitzaile —bi lanaldi erdian—, garbitzailea eta sukaldaria dituzte Berako Mukixu Haur Eskolan. Enpresa pribatua izanik plantilla «gure modura» antolatu dutela diote. Nafarroako Gobernutik hiru lanaldi oso ezarri dizkiete, baina horietatik bat bitan banatu dute «goizetan langile gehiago izatea interesatzen zaigulako. Bi langile lanaldi erdian aritzeko prest agertu izana aprobetxatu dugu. Hala ez balitz, hezitzaile bat guttiago izanen genuke». Ez hori bakarrik. «Zuzendari bat behar genuke eskolan, baina zuzendari izan beharko lukeena hezitzailea da eta talde bat hartzen du bere gain». Hala, «magia eta sakrifizioak eginez» moldatu dira. «Aurten matrikulazioa jaitsi zaigu, baina heldu den urtean goiti egiten badu, ez dakigu nola moldatuko garen».



SONIA ELIZONDO ERASUN
DONEZTEBEKO HAUR ESKOLA

«Argi ikusi dut haur bakoitzari behar duen denbora eskaintzean, 'egokiak ez diren jarrerak', 'agresibitatea'... gutxitu egiten direla. Haurren beharrak maitasunez eta lasaitasunez asetzeko aukera dugunean, gelako giroa erraztik aldatzen da. Lana maite dut baina ditugun baldintzetan inkoherentziak daude».



MAXUX SUKUNTZA LARREA
LEITZAKO HAUR ESKOLA

«Lanerako modua asko aldatu da, eta umeei protagonismoa ematearen garrantziaz ohartu gara. Askok behatu eta beraien beharren arabera jokatzeko dugu, behar denean arreta pertsonalizatua eskainiz. Baina ditugun haur kopuruarekin oso zaila da eta askotan biziraupenuneak izaten ditugu».

→ Mobilizazioak

«Diskurtso huts eta itxaropen falsuekin nazkatuta» daudelako, Eguberrien aitzinetik mobilizazioekin hasi ziren, ratioak jaitsi eta soldatak igotzeko eskaera lau haizetara zabalduz. Iruñean egin zituzten lehenbiziko elkarretaratzeak, Nafarroako Parlamentuaren aitzinean. Urte hasieratik, ordea, Iruñeko protesta eskualdeko elkarretaratzeekin txandakatzen dute. Horren arabera, martxoaren 26an Iruñean bilduko dira, apirilaren 2an eskualdeko protestak egingen dituzte, apirilaren 23an Iruñean, eta 30ean eskualdeko.

Tokian tokiko protestak egiteko eremuka antolatu dira. Baztan, Bortzirriak, Doneztebe eta Lesakako haur eskoletako hezitzaileak Basaburua eta Ultzamakoekin ari dira elkarlanean eta Leitzakoak Larraun-Sakana aldekoekin. Aldi berean, azken lantalde hori bitan banatu dute: Leitza, Betelu eta

Lekunberrikoak alde batetik, eta Sakanakoak bertetik. Hain zuzen, apirilaren 30eko kontzentrazioa Leitzan egingen dute. Baztan-Bidasoaldekoek, berriz, martxoaren 12an Elizondon egitekoa zuten protestaren ondotik, apirilaren 2an Beran egingen dute.

Ez da hori protestarako hartu duten bide bakarra. Ortzegunetan Hezkuntza Departamentura e-mail bidalketa masiboa egingen dute, hezitzaileek zein gurasoek, «hemen gaudela oroitarazteko». Haur eskoletan kontent daude gurasoen, udalen eta herritarren aldetik jaso duten erantzunarekin, baina lanean segitu beharko dutela diote, «borrokarik gabe ez dugulako deus ere lortuko». Gainera, zikloa duindu arteko «borroka luzea» izanen dela sinetsita daude. Bide batez, herritarrei ere luzatu diete mezua, «haurtzaroa zaintzea denon ardura» dela adieraziz.



Doneztebeko Askin Haur Eskolan haurrak margotzen.

Doneztebeko Askin Haur Eskola

Haur eskola «txikia eta oso familiarra» dela kontatuz aurkeztu digute Doneztebeko Askin Haur Eskola, eta kontent daude «aurtengo egoera berezia eta ona» dutelako: «bi gela ditugu eta gela bakoitzeko bi hezitzaile gaude. Txikien gelan 16 haurrekin bi hezitzaile gara eta handien gelan 14 haurrekin beste bi hezitzaile, guztiak lanaldi osoan». Horrez gain, zaintza momentuetan haurrek behar duten arreta pertsonalizatua eskaintzeko laguntza jasotzen dutela azaldu digute. Alde horretatik, ikasturte honetan, «lanean ongi moldatzeko nahikoak» direla azpimarratu dute. Baina argi mintzatu dira: «egoera hau urtero aldatzen da, haur kopuruaren arabera izaten baita».



Leitzako Haur Eskolako haurrak jolas librean.

Leitzako Itzaire Haur Eskola

Lau taldetan banatuta, 44 haur dituzte Leitzako Haur Eskolan eta horiez arduratzeko lau tutore, zuzendaria, behar bereziko hezitzailea, jangelako bi laguntzaile eta garbitzailea. Udal langileak diren aldetik «pozik» daude, baina ratioekin ezin dute: «bi gela osotara beteta ditugu eta besteetan plazaren bat libre dugu, baina mugan gaude». 0-1 urteko gelan sei haur dituzte, 1-2 urtekoetan bi gela gehienezko kopuruarekin beteta, 12 eta 13 haurrekin –bat behar bereziko, laguntzailearekin–, eta 2-3 urtekoetan 13 haur. Zuzendaria laguntzaile lanetan aritzen bada ere, «momentuaren arabera hezitzailea bakarrik» gelditzen dela baieztatu dute: «haur batek arreta pertsonalizatua behar badu, hezitzailea bakarrik dago haur hori eta gainerakoei arreta eskaintzeko».



Lesakako Haur Eskolako bi haur kanpoko eremuan.

Lesakako Magala Haur Eskola

laz sortu zen Lesakako Haur Eskola eta aurtengoa lehenbiziko ikasturtea dute. Hala, «haur guttirekin eta plantilla osoarekin» ari dira lanean: «0 eta 2 urte bitarteko 12 haur ditugu eta bi hezitzaile eta zuzendaria gara». Alde horretatik, egoera «berezia» dutela diote, baina aldi berean, «haur eta hezitzaileon egunerokoan hagitz lagungarria» zaie: «bakarkako arreta, talde ttikiak, zaintza momentu lasaiak, gurasoei eskainitako denbora, eskolako giroa, haurren beharrei momentuan erantzutea...». Horrela «haurrei ongizatea eta lasaitasuna eta gurasoei konfiantza» eskaintzeko aukera dutela aipatu dute. Baina badakite «gure egoera ez dela erreala eta heldu den ikasturtetik aitzinera bertze haur eskoletakoen egoeran egon den garelako: gehiegizko taldeekin eta soldata eskasarekin».

«Liburutegiko zerbitzu guztiak izanen dituzte herritarrek eskura»

HARKAITZ DELGADO TOBIAS LEITZAKO LIBURUZAINA

Liburutegi ibiltariarekin baliabideak, aholkularitza zerbitzua eta herritarrek literaturzaletasuna sustatzeko antolatu ditzaketen ekimenetarako sustengua eskaini nahi dituzte

E. IRAOLA ARESO

Otsail hondarrean jarri zuten martxan Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko liburutegi ibiltaria. Harkaitz Delgado liburuzaina da zerbitzua sustatu eta kudeatzeaz arduratzen dena. Liburuzainek erabiltzailearekin duten tratua eta harremanak «zerbitzuaren erabilera ziurtatu eta finkatzen» duela iritzita, bera izanen da hilabeteen behin herritarrengana bisitan joan dena.

Zein da liburutegi ibiltariaren helburua?

Gure inguruan herri asko dago liburutegi-zerbitzu egonkorrik gabe eta hori nolabait arintzeko helburuarekin sortu dugu LAGA Liburutegi Ibiltaria. Proiektu honek Leitza, Areso, Goizueta eta Arano batzen ditu, eta hasiera batean norabide bakarreko zerbitzua badirudi ere, denborarekin jendea ohartuko da guztientzat dela onuragarria, informazio asko partekatuko baitugu elkarrekin.

Ez da zabaldua dagoen eredu...

Orain arte, Aurizberriko liburutegiak eskaintzen duena izan da Nafarroako liburutegi ibiltari-zerbitzu bakarra. 20 urte baino gehiago daramate zerbitzu hau eskaintzen, eta, egia esatea nahi baduzue, ez dut ulertzen nolatan ez den esperientzia hori beste herri eta eskualde batzuetara zabaldu.

Zein da funtzionamendua?

Liburutegi ibiltariaren funtzionamendua erraza da. Bal-



Harkaitz Delgado Tobias, Leitzako liburuzaina. E. IRAOLA

dintza bakarrenetakoa Nafarroako Liburutegi Sareko erabiltzaile-txartela egitea da, guztiz doakoa. Erabiltzaileek alde aurretik eska ditzakete nahi dituzten dokumentuak eta banaketa egunean bertan jaso. Komunikaziorako bide ugari daude eta erosoan suertatzen zaiona erabil dezake erabiltzaileak. Horretaz gain, banaketa egunean bertan, dokumentu aukeraketa bat eramanez dugu herrietara, eta horietatik ere aukeratu ahalgo dituzte. Banaketak egiteko egunak ere aukeratu ditugu: Aresorako hileko azken osteguna, eta Goizuetarako eta Aranorako azken ostirala. Egun horietan herrietara gerturatu gara, dokumentuz

betetako kutxak hartuta, eta ordu erdiz erabiltzaileekin egoteko baliatuko dugu.

Bitartekaria izanen zara, baita gidaria ere...

Gure lana, hein handi batean, horretan datza; hain zuzen ere, liburutegiko liburu guztiak irakurri ez baditugu ere, askoren erreferentziak jasotzen ditugu, eta informazio hori baliatzen dugu erabiltzaileei irakurketa-proposamenak egiteko. Askotan jendea se-

«HAINBAT ZERBITZU AURREZ AURRE EMAN BEHAR DIRA»

me-alabentzako liburu bila etortzen da eta guretzat momentu ona izaten da guraso horiei ere irakurketaren bat proposatzeko. Ez dugu aukerarik galtzen (kar, kar).

Liburutegi ibiltariaren egiteko dokumentuen trukea baino gehiago izatea nahi zenukeela aipatu izan duzu. Azaldu...

Liburutegien helburua liburutatik haratagokoa den bezala, liburutegi ibiltariaren zerbitzua ere ez da dokumentuen trukea mugatzen. Inplikaturako lau herrien arteko harremana sendotzea ere badu helburu, eta horretarako jendearen inizatibatik sortutako jarduerak bultzatu nahi ditu. Jendearengandik sortutako esperientzia asko partekatu ditzakegu elkarrekin eta liburutegia horiek ardazteko tresna baliagarria dela uste dut.

Horretarako, herritarren inplikazioa, parte-hartzea, funtsezkoa izanen da?

Bai, noski! Herritarren inplikazioa da honen guztiaren motorra: herriarena eta herritarrentzat. Zerbitzuak jasotzen ditugun neurrian, zergatik ez hasi zerbitzuak sortzen? Jendearen borondatez elikatutako zerbitzuak askoz ere osasuntsuagoak dira, eta jendearengan hurbiltasuna sortzen dute. Liburutegian, azkenaldian izan ditugun jarduerak guztiak erabiltzaileek sortutakoak izan dira eta, herritarren inplikazioa tarteko denean, horiekiko interesa ere handitzen da.

Zer nolako harrera izan du momentuz zerbitzuak?

Oso harrera ona izan du maila guztietan. Hasieratik udalen erantzuna ona izan da eta bidea erraztu dute proiektuak aurrera egin dezan. Otsailean egin genituen lehenengo banaketak eta jendea gustura gelditu zela iruditzen zait. Gero eta jende gehiagok betetzen du liburutegi ibiltariaren zerbitzua baliatu ahal izateko erabiltzaile-txartela, eta hori seinale ona da. Aurrera begira, itxaropentsu nago.



Elkarteko familietako haurrak, 'Bizipoza' egitasmoaren aurkezpenean. GUZTIOK

Guztiok taldea laguntzeko tonbola solidarioa martxan da

Hainbat opariren zozketa maiatzaren 29an egingen dute zuzenean Xorroxin Irratian

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Guztiok Taldea, irabazi asmorik gabeko elkarte da eta 2013ko otsailean sortu zen, desgaitasunak, behar bereziak edota une konkretu batean behar berezi bat duten umeen beharrak asetzeko helburuarekin. Gaur egun, hainbat behar dituzten 17 familiak osatzen dute elkarte.

Taldearen helburua, zonaldean ez dauden terapia eta osasun arloko gaiak asetzea da. Beti ere, hirietara maiz bidaiatu behar ez izateko.

Urte hauetan elkarte eza-gutzera eman eta ahalik eta familia gehienei laguntzen egin dute lan. Horrela, hainbat ikastaro antolatu dituzte.

Zerbitzuak/terapiak

Lesakako igerilekuan hidroterapia eskaintzen dute. Beran psikologia eta fisioterapia zerbitzua. Eta hiru zerbitzu horiek elkartuta, Bortzirietako neuro-errehabilitazio zerbitzua osatzen dute. Hilabetean behin, txakurrekin terapia egingen dute elkarteko neska-

mutikoei. Behar bereziak dituzten umeen anai-arrebek ere, *Hermanos txikis* taldeko proiektuan parte hartzen dute. Hartara, euren ezinegonak, zalantzak eta batez ere ulertuak sentitzeko ezinbertzekoa den terapia garatzen dute.

Kontuan hartuta, terapia hauek edozein ikastaro baino garestiagoak direla, laguntza ekonomiko handia behar izaten dute aitzinera atera ahal izateko eta zerbitzu hauek martxan segituko duten edo ez, dirulaguntzen arabera erabakitzen dute.

Azken urteotan ekimen solidarioak antolatu dira Guztiok elkartearen alde: Berako abesbatza eta musikarien kontzertua, Txamukos mariatxiek egingako bideoklipa eta kontzertua, kirol taldeek elkartearen alde egingako ekitaldiak...

Orain Guztiok elkartearen aldeko Tonbola solidarioa antolatu dute, Bortzirietako komertzioen laguntzarekin: 10 erosketa-txartel; produktu eta janariarekin osatutako 30 lote/saski baino gehiago; masaje, spa edota ile-apaindegietan 12 saio baino gehiagotara joateko txartelak; jate-txetean eta kafetegietan, lande-txetean eta hoteletan otorduak edota egonaldiak eta bertze hainbat opari. Boletoak Bortzirietako komertzio batzuetan salgai daude, eta Guztiok elkarteko kideek eta boluntarioek ere saltzen dituzte. Zozketa, maiatzaren 29an, Xorroxin irradian egingen dute.

Euskararen erabileraren datuak aurkezteko saioa egingen dute

TTIPI-TTAPA BERA

Zertan da euskararen egoera Bortzirietan? goiburupean, joan den urtean egingako karrika-erabileraren neurketaren emaitzak aurkezteko eta gogoeta partekatze ekitaldia antolatu du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak martxoaren 27an, ortziralean, 18:30ean Berako Beralandetan. Ekitaldi irekia izanen da, ordu eta erdi ingurukoa eta Maialen Iñarra, soziolinguista izanen da hizlari.

Saioak bi atal izanen ditu: alde batetik, ikerketaren emaitzen aurkezpena eta bertzetik, emaitzen inguruko gogoeta, dinamika baten bidez egingen dute.

Bi urtean behin euskararen erabileraren karrikako neurketa egiten du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak herriz herri, eta, gisa horretara, erabileraren mailaren bilakarari buruzko informazioa jasotzen du.

'Hiru aldiz Euskara' bideoa

Bertze alde batetik, martxoaren 29an, igandean 18:30ean Lesakako Harriondoa Kultur Etxean *Hiru aldiz Euskara* bideo emanaldia eskainiko dute, Lesakako Euskara Batzordeak antolatua.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

'Bera Zigardiberetik ikusia: 300 urte' solasaldia prest dute

Jose Mari Zelaieta Errandoneak eskainiko du apirilaren 1ean Beralandetan, 19:00etan hasita

TTIPI-TTAPA

Bera Zigardiberetik ikusia: 300 urte solasaldia eskainiko du apirilaren 1ean, asteazkenean 19:00etan Beralandetan Jose Mari Zelaietak.

Jose Mari Zelaieta Errandoneak, Zigardiberetik semea, Iruñean ikasi zuen eta Elizondon eta Iruñean maisu lanetan aritu izan da duela gutti arte.

Jubilatu ondotik, astero Nafarroako Artxibora joaten hasi zen, batez ere Zigardiberetik, bere sortetxearen inguruko berriak bila. Bilaketa lanean bere etxekoez gainera, herriko

bertzelako kontuak topatu ditu eta Beralandetako solasaldian horietaz guztietan arituko da.

XVIII. mendeko ikuspegia

Hala nola, orduko baserrien ezaugarriak, baserriaren eskubide ekonomiko eta politikoak, ondarea, oinordetza, ezkontzak; XVIII. mendeko Bera herriaren panoramika eta Bera herrian mugaren eragina izanen dira mintzagai.

Solasaldia gehienbat euskaraz izanen da eta pantailako aurkezpena gaztelaniaz.

Ipuin-kontalaria ingelesez hilaren 27an liburutegian

Martxoaren 27an, ortziralean, 18:00etan, liburutegian Alexia Papantchev ipuin-kontalariak *Looking for Betsy* ipuina kontatuko du herri liburutegian, sei urtetik goitiko neska-mutikoendako emanaldian. Herri liburutegiak eta kultur batzordeak antolatuta dute saioa.

'Erlauntza' antzezlanaren hilaren 22an kultur etxean

Vaiven Produksioak taldeak *Erlauntza* antzezlanaren eskainiko du martxoaren 22an, igandean, 18:00etan, kultur etxean (7 euro). Goldatzek antolatuta du emanaldia, udalaren eta kultur batzordearen laguntzarekin, Nafarroako Antzoki Sarearen baitan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lila-Katea Emakumeen Eguna osatuz

Goldatz talde feministak egindako deialdiari erantzunez, lila katea egin zuten martxoaren 8an. Altxateko plazatik abiatuta osatu zuten katea. Ondotik Merkatu plazan taldeko argazkia atera zuten. Autodefentsa pertsonalaren ikastaroa, elkarretaratzea eta film emanaldiak ere izan dituzte aurtan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gure Txokoako nesken taldea zelaira

Bere garaian Gipuzkoako ligako txapeldun izan zen Gure Txokoako emakumeen taldea, baina aspaldian ez zuen halakorik zelairatu herriko elkarteak. Orain, infantil mailan Gipuzkoako Kopan hasia da argazkiko taldea. Garaipenik ez dute lortu oraindik, baina dena ailegatuko da.

AUZOA GO!
Etxez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAN
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu antizak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

JAIONE-GOXOTEGIA
Etxean
egindako
produktuak
948 630 786 • Altxate, 21 • BERA

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

LABE ZAR
Astelehenerdik
ortziralea:
07:15etik
aitzinerak
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerak
948 631 076 • BERA

Zubiria gogoan omenaldia prest dute apirilaren 4an

Goizean mendi irteera eta ekitaldia Sastrinen, poteoa, bazkaria eta Kanka taldearen kontzertua izanen dituzte

AITOR AROTZENA

Herriko hainbat arlotan aski ezaguna eta estimatua zen Joxe Angel Zubiria zenari omenaldia eskainiko diote apirilaren 4an. Apirileko lehen larunbatean 09:00etan Plaza Zaharretik abiatuta mendi irteera egingen dute Sastrinera eta 10:30ean ekitaldia izanen dute Sastrinen. 13:00etan poteoa egingen dute Antoiutik abiatuta eta 14:30ean bazkaria frontoian. 19:00etan poteoa abiatuko da Irubidetik eta ondotik, Kanka taldeak joko du Arranon.



Zubiria Fraindarrekin inauterietan.

Bazkarirako txartelak erosteko azken eguna martxoaren 29a izanen da. Arranon, Irubiden eta Botxon salgai paratu dituzte (helduek 30 euro eta haurrek 15 euro).

'Oztoporik gabe, hobe!' erakusketa zabalik da liburutegian


A. AROTZENA

Life Irekibai egitasmoaren baitan, *Oztoporik gabe, hobe!* erakusketa ikusgai izanen da liburutegi publikoan martxoaren 16tik 27ra, astelehenetik ortziralerara 14:00etatik 20:00etara.

Erakusketak, hasteko, ibai baten azpia eta ingurunea birsortu ditu. Horrez gain, ilustrazioak, mapak, grafikoak eta irudi ikusgarriak ageri dira; horien bidez, ibaietako zati-keta arazoak zertan diren axaldu nahi dute, izokin batek lehen pertsonan kontatzen

duen istorioaren bitartez; eta bertzetik, ikusgai dago zer-nolako ildoak hartu dituzten administrazioek biodibertsitatea zaintzeko politketan, gure ibaiak hobetzeko. Gainera, zer neurri garatu diren eta zer emaitza izan diren Europako Life Irekibai proiektuan ageri da, hots, *Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza*. Proiektuan partaide da Nafarroako Gobernua.

LABRIT Multimedia enpresak ondu du erakusketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haur Txokoa ireki dute komentuan

Martxoaren 2an, Haur Txokoa ireki zuten komentuan. Haurrendako jostailuak eta bertzelako baliabideak eskaintzen dituen txokoa astelehenetik ortziralerara bitarte, 16:30etik 20:00etara egonen da zabalik, maiatzeko hondarreko egunera arte. Ttikiek ezin dute tresna teknologikorik eraman txokora.



LOREA FLORES

Emakumearen Egunean plaza dantzan

Emakumearen Egunaren harira, martxoaren 8an plazan bildu ziren kafe-tertulua batean, herriko emakumeen kontuetaz aritzeko. Ondotik, lerro-dantza emakume taldearekin dantza tailerra izan zuten, jokoak, kalejira... Giro bikaina izan zuten bai egunean, baita bezperako afarian ere.

Jon Olaizola txapelkun Zizurko lau eta erdikoan

Zizurko lau eta erdiko pilota txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 7an. Senior mailako finalean, Uharte taldearekin jokatzen duen Jon Olaizola lesakarrak 18-17 irabazi zion Buruzgain taldeko Ruben Santamariari. Iaz ere txapelkun izan zen Olaizola.



Jon Olaizola txapelarekin Zizurren.

Musikoterapiaren inguruko hitzaldia Larraburuan

'Badakigu zer egiten den musikoterapia tailerretan?' galdera erantzunen dute martxoaren 27an (19:00)

IRUNE ELIZAGOIEN

Badakigu zer egiten den musikoterapia tailerretan? Galdera hori eta bertze hainbat zalantza argitzeko hitzaldia antolatu du Larraburua elkar-teak martxoaren 27an, 19:00etan Larraburuan bertan. Haizea Loira Matxiñena musikoterapeuta eta GIM terapeuta izanen da hitzaldia emanen duena. Musikoterapia zer den azaltzeaz gain, Etxalarren horrelako tailer bat antolatuz gero nolakoa izanen litzatekeen azalduko da. Dementzat irekia izanen da.



Egurra tailatzen ikasi dute.

Taila eta mimbre ikastaroa

Bederatzi lagun aritu dira Noeren gidaritzapean mimbrea egiten eta egurra tailatzen ikasten. Akabera ona emateko afaria egin zuten martxoaren 7an Herriko Ostatuan.

Imanol Vicentek bikain hasi du denboraldia

Martxoaren 7an Nafarroako txapelketarako puntuazioa lortzeko denboraldiko lehen karrera irabazi zuen Olaxarrek Villalobarren, Burgosen. Nitokar 3 ibilgailu berriarekin gustura gelditu zen. Hurrengo karrera Mendavian izanen du martxoaren 28an.



Imanol Vicente garaile Errioxan.



ANA INDABURU

Emakumearen Egunean karrikara

Martxoaren 8an dozenaka lagun elkartu ziren Emakumearen Egunean antolatutako trikipoteo eta elkarretaratzean. Trikitilarien laguntzarekin kantuan aritu ziren, elkartu eta ondokik giza-katea egin zuten plaza inguruan. Bortzirietako Emakumeen Itzulian ere izan ziren batzuk Igantzin.



ITSASO ELIZAGOIEN

Gazteak Usurbilgo sagardotegian

Martxoaren 7an Usurbilgo Arratzain sagardotegira joan ziren herriko 30 gazte. Eguraldiak aunitz lagundu ez bazuen ere, trikitixaren laguntzarekin kantuan arratsalde erdira arte sagardotegian egon ziren. Goizeko laurak arte besta luzatuta, autobusean itzuli ziren herrira.



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA





USOA
Nekazari kooperatiba

**ORAIN
GASOLINA ERE**

T. 948 635 214 ETXALAR

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Herri Kirol Jokoen finala herrian izanen da aurten

Proba konbinatuan ari da herriko taldea haur eta kadete mailetan eta azken jardunaldia apirilaren 5ean izanen da

TTIPI-TTAPA

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Nafarroako Herri Kirol Jokotarako taldeak plantatu dituzte herrian. Zehazki, kimu eta haur mailetan proba konbinatuan lehiatzen hasiak dira. Aurtengoan, baina, bertze erakargarri bat izanen du txapelketa honek, finalak Igantzin jokatu baitira apirilaren 5ean.

pelketa honek, finalak Igantzin jokatu baitira apirilaren 5ean.

Txapelketa martxoaren 8an abiatu zen Berriozarren eta herriko bi taldeak ongi hasi ziren. Haur mailakoak lehenbizikoak izan ziren eta kimu mailakoak hirugarren. Ondotik, hilaren 15ean aritzekoak



Nafarroako Herri Kirol Jokotarako bi taldeak hilaren 8an Berriozarren. UTZITAKOA

ziren Etxarri Aranatzeko eta segidan, martxoaren 22an Antsoainen eta 29an Altsasun arituko dira.

Aipatu bezala, bosgarren jardunaldia (finalak), apirilaren 5ean izanen dira Igantzin, 10:30ean hasita.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietako Emakumeen Mendi Martxa

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako Emakumeen XI. Mendi Martxa herrian egin da aurten. Txangoaren ondotik, elkarretaratzea, triki-saldapotea eta bazkaria izan zuten Emakumeen Nazioarteko Egunean. Heldu den urterako lekukoa Berari eman zioten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aitor Begino lider Euskadiko Openean

Igantziko Biltoki-Katea Bike taldeko Aitor Begino herritarrak irabazi zuen Errenterian San Marcos gotorlekuko mendi bizikleta lasterketa martxoaren 1ean, Euskadiko Openerako baliagarria zen lehen proba. Gisa honetara, Begino Openeko lehen liderra da elite mailan.



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL



Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKARÓZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

25 bat lagun hasi dira helduen dantza taldean

Astelehen ilunabarretan ordubeteko saioak egiten dituzte eskolako gimnasioan

NEREA ALZURI

Badira urte batzuk helduen dantza taldea desegin zela, baina aurtén, herritar batzuen ilusioari tiraka, martxan da berriz. Gainera, arrakasta politarekin hasi du ibilbidea. Maria Azpiroz irakasle dutela joan den martxoaren 9an egin

zuten estreinako saio eta 26 lagun bildu ziren euskal dantzak ikasten hasteko.

Norbaitek dantza taldean hasi nahi izanez gero, atek zabalik izanen ditu. Astelehenetan eskolako gimnasiara agertzearekin aski izanen du, 19:15etik 20:15era.



UTZITAKOAK

Emakumeen Eguna gogoan

Martxoaren 6an, elkarretaratzea egin zen eguerdian plazan eta arratsaldean, berriz, solasaldi interesgarria eskaini zuen Idoia Lekue berdintasun aholkulariak. Martxoaren 8an, Unanura egindako Bortzirietako emakumeen mendi itzulian ere parte hartu zuten herriko emakumeek.

Bortzirietako txapelketako pilota partidak larunbatetan

Bortzirietako Banakako Pilota Txapelketa otsailean abiatu zen eta larunbat goizero pilota partidua izaten dira herriko frontoian. Herriko 13 pilotari ari dira parte hartzen apirila bitarte luzatuko den txapelketan. Oraindik ez dute zehaztua finalen eguna.

Zuhaitz landaketa egin dute eskolako lagunek

Urtero bezala, joan den otsailaren 21en, udalarekin elkarlanean, zuhaitz landaketa egin zuten eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek eta irakasleek. Haritz amerikanoen (*Quercus Robur*) 100 planta landatu zituzten Senberroko bordan.



ANDONI ZULAIKA

Erlezaintza ikastaroa

Joan den otsailaren 29an, herriko liburutegian erlezaintzari buruzko ikastaroa eskaini zuen Xiker Salaberria beratarrak. Zazpi lagunek parte hartu zuten eta alde teorikoa jorratu zuten, erlezaintzari buruzko kontu interesgarriak ikasiz. Teoria praktikan jartzeko bertze egun batean bilduko dira.



aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net

AMA KONTXA
GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

GASOLIOA ETXERA
ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA




VIII. Kantu Zaharren Eguna larunbatean izanen da kanpinean

Eguerdian Aurtizko joaldunak ibiliko dira, kantu-bazkaria eta bazkalondoa Joxe Angel akordeolariak girotuko du

MAIDER PETRIRENA

Kantu Zaharraren Egunak zortzigarren edizioa beteko du martxoaren 21ean Ariztigan kanpinean.

Larunbatean 12:00etan Aurtizko joaldunak ibiliko dira giroa alaitzen eta bazkaldu bitartean kantuan arituko dira.

Bazkaria 14:00etan izanen da eta bazkal ondoren, Joxe Angel akordeolariaren laguntzarekin, kantu zaharrak abesteko aukera izanen da. Ilunabarrean pintxoekin afaltzeko aukera izanen da. Bazkari, afari eta liburuaren prezioa 48 eurokoa da.

Ulibeltzak elkarteak junta berria aukeratu du

Ulibeltzak Elkarteak martxoaren 7an batzar orokorra egin zuen. Iazko aktaren onespina, bazkide berri baten sarrera, 2019ko kontuak, 2020ko herriko bestak eta batzordeko lau kideren aldaketa egitea tokatu zen. Bi urtez juntan egon ondotik, Janire Apeztegiak, Aitor Ibarrek, Mari Paz Gelbenzuk eta Iñigo Arrietak utzi dute eta Maite Mendibil, Olaia Gandara, Meliton Irazoki eta Faustino Mariezkurrena sartu dira. Lerro hauek idazterakoan oraindik ez zeuden karguen banaketak eginak.

Herriko hainbat txirrindulari hasiak dira han eta hemen

BTTko Nafarroako Kirol Jokatoko proba puntuagarriak hasi ziren otsailaren 29an Iraixen. Parte-hartzaileen artean herriko Markel eta Aimar Agesta, Unax eta Ander Larraburu, Oihan eta Ander Apeztegia, eta Aitor Igoa. Euskadiko opean ere ordezkaritza izan zen martxoaren 1ean, Koldo Herrera, Eneit Bertiz eta Igor Agestak parte hartu zuten. Caja Ruralek urtero antolatzen duen BTT kopa martxoaren 8an hasi zen Kaparrosen eta honetan ere herriko txirrindulariak izan ziren.



KARMENTXU ANZIZAR

Arkupeak elkarteko herriko besta

Arkupeak Elkarteko herritarrek beraien urteko besta ospatu zuten martxoaren 8an. Mus txapelketan lehenak Juana Mari Agirre eta Jose Mari Arretxea gelditu ziren; bigarren Migel Anzizar eta Jose Vicente Alzuri; hirugarren Gregorio eta Estefani Agesta eta laugarrenak Juan eta Jose Luis Bertiz.



ESKOLAK UTZIA

Eskolako ikasleak English Week-en

Monteagudo, Noain, Ituren, Legasa, Saldias, Narbarte eta Sunbillako 5. eta 6. mailakoek martxoaren 2tik 6ra bitarte English Week programan parte hartu dute. Ederki gozatu dute, harremanak eginez, ingelesa ikasiz eta jarduerak egiten. Aurpegietan poza eta pena agerikoa zen etxerako bueltan.

**GAUR EGUNERA
EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK**

Luis Ibarra

**ZURGIN-LANAK OROKORREAN
636 701 204**

Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)

ibarrazurgina@gmail.com

ORBELA
SENDERISMDA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361

ttipi-ttapa

BORDALARRIA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Dantza taldeak 10. urteurrena ospatuko du apirilaren 4an

Goizean gaiteroak eta dantza herrikoiak izanen dituzte; ilunabarrean, berriz, dantza ekitaldia

MARGA ERDOZAIN

Erreka Dantza Taldeak Doneztebeko Udalaren eta merkatarien laguntzarekin, emanaldi ederra antolatu du apirilaren 4rako.

Goizean, 11:00etan hasita, gaiteroak herrian barna ibiliko dira. Eguerdian, 12:00etan, dantza herrikoiak izanen dira Santa Luzia plazan. Bien bitartean, bertaratzen direnek mokadutxo batzuk dastatzeko aukera izanen dute. Ospakizuna borobiltzeko, 20:00etan dantzariak ekitaldia eskainiko dute. Herriko kiroldegian zehaztu dute hitzordua. Sarreraren ANELA elkarteak laguntzeko txartelak salduko dituzte eta ekitaldia akitzen denean zenbait sari zozketatuko dituzte.

Hamar urte hauetan dantzariak herriari hainbat emanaldi gustagarri eskaini dizkiote. Oraingoan ere herriari eskertu nahi diote hamarkada honetako jarduna; baina herria da dantza taldeari ibilaldi oparo honengatik eskerrak eman nahi dizkiona: «badakigu astero entseguak egin dituzuela,



badakigu espartinak eta zapatila aunitz hautsi dituzuela, badakigu izerdia isuri duzuela... beti gogotsu, beti alai, beti eraberritzeko eta dantza eta soinu berriak ikasteko prest. Zorionak hamarkada honengatik eta ea zuen espartinek bertze horrenbertze urte betetzen dituzten!».

Biharamunean Mendi Abesbatzaren kontzertua

Hurrengo egunean, apirilaren 5ean, 19:00etan, Mendi Abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan. Jon Irazokik zuzendutako emanaldi horretan, Ruth Etxebeste eta Amaia Cordoba pianojoleek konposatzaile handien lanaz gozatzeko aukera izanen dute: M. Duruflé, Aita Medina, J. Larréga, F. Moreno-Torroba...

Zinema emanaldi bikoitza martxoaren 29an

Martxo hondarrean, hilaren 29an, bi film pantailaratuko dituzte zineman. 16:30ean *Perez, ametsetako sagutxoa* filma pantailaratuko dute (sarrera euro bat) eta, segidan, 18:30ean, *Familia al instante* eskainiko dute (sarrera bi euro ordaindu beharko da).

Askin haur eskolako aurrematrikula epea zabalik

Askin haur eskolako aurrematrikula epea zabalik dago martxoaren 21era, heldu den larunbatera, arte. Argibideak nahi dituztenek 948 45 18 68 telefonora deituz edota askinhaureskola@gmail.com helbidera idatziz lortu ahal izanen dituzte.

Udala trafikoa arautzeko ordenantza prestatzen ari da

MARGA ERDOZAIN

Onartua dagoen 2008ko ordenantza abiapuntutzat hartuta gaur egungo egoerara egokitu nahi du Udalak. Martxoaren 10ean lehendabiziko bilera orokorra izan zuten. Bertan, zirriborroaren nondik norakoa aurkeztu zitzaizen berataratu zirenei.

Hemendik aitzinera, hasteko, auzokaurkezpenak egingen dituzte: 1. Leitzaldea, San Miguel auzoa; 2. Elizagibela; 3. Mourges, Rosa Seminario eta San Salvador; 4. Ameztia aldea eta Alde Zaharra eta 5. diseminatu guztiak. Aurkezpen horien helburua ordenantzari ekarpenak egitea da eta bertan zalantzak eta galderak helarazteko aukera ere izanen da. Merkatariek egindako hainbat ekarpen ere kontuan hartuko dira.



Ondotik, behin-betiko ordenantza osatu eta onartuko dute. Ordenantza horri esker auzo guztiak arautuak eta markatuak geldituko dira. Azkenik, bandoak arautu eta kontrol neurriak zehaztuko dira. Horrela, garabi eta orokorrean kontrol neurriak, as-teburuetako itxierak, errota-zioak eta bertzelako adostasunak jasota geldituko dira.

Ordenantzaren nondik norakoaren berri lerro hauen bidez ere emanen dutela jakinarazi dute.



I. ZUBIALDE, E. IRIARTE ETA A. JUANOTENA

Eskualdeko emakumezkoen bilgune

Baztan-Bidasoaldeko talde feministek martxoaren 8rako deitutako Emakumeen Eguneko manifestazioa Donezteben egin zen. Eskualdeko herritar andana bildu zen aldarrikapenez betetako hitzorduan. Eliz atarian akitu zuten buelta, musikaz girotutako aldarrikapenak adituz.

MALERREKA / BERTIZARANA



Martxoaren 7an Oizen egin zuten Malerreka Kantuz. RAKEL ARIZTEGI

Malerreka Kantuz apirilaren 4an Ezkurran izanen da

Aurtengo laugarren Malerreka Kantuz izanen da apirilaren 4an

TTIPI-TTAPA

Urtarrilean Zubietan eta otsailan Urroren egin ondoren, martxoan Oizen egin zuten Malerrekako eta inguruko kantuzaleak biltzen dituen Malerreka Kantuz egitasmoa. Jende aunitzik plantatu ez bazen ere, bildutakoak kontent gelditu ziren.

Aurtengo laugarren geldialdia, berriz, Ezkurran egingen dute, apirilaren 4an, hilabete lehenbiziko larunbatean. Malerrekako Euskara Zerbitzuak antolatutako ekimena 12:00etan abiatuko da Ezkurako plazatik. Musika lagun euskal kantak kantari ibiliko dira berriz ere.



OLATZ MUTUBERRIA

Emakumeen Eguna Narbarten

Mahaiaren bueltan bilduz ospatu zuten Emakumeen Eguna Narbarteke emakumezkoek. Hainbat adinetako 33 lagun elkartu ziren martxoaren 7an afaltzeko. Afaldu ondoren, kanta zaharrak kantari aritu ziren eta eguna umore ederrean boro bildu zuten.



UTZITAKOA

Lasterkariak Lilatoian

Eskualdeko hainbat izan ziren martxoaren 1ean Donostiako Lilatoian parte hartu zuten lasterkariak. Horien artean, argazkian ageri diren Maite Santesteban, Edurne Santesteban, Marimar Bergara, Miren Juanotena eta Janire Uzkiagak osatu zuten bortz kilometroko lasterketa.



IZASKUN ZUBIALDE/INIGO ZUBELDIA

Kolorea eta umorea Saldiasko inauterietan

Otsailaren 28an eskolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak izan ziren inauterietan murgildu zirenak. Biharamunean, berriz, herritar guztien txanda izan zen. Etxe etxe eta baserri baserri eskean ibili ziren eta eguerdian eta gauean mahaiaren bueltan giro ederrean elkartu ziren.



www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

Mendian segurtasuna bermatzeko ikastaroa Donezteben

Martxoaren 27tik 29ra izanen da ikastaroa eta izena emateko Nafarroako Gazteriaren Institutura idatzi behar da

TTIPI-TTAPA

Gazteekin egiten diren Jar-deretarako Nafarroako Eskolak (GENE) antolatuta, martxoaren 27tik 29ra, hiru egunez, mendiko segurtasunari buruzko ikastaroa izanen dute Belbieretxean. Izena eman nahi dutenek Nafarroako Gaz-

teriaren Institutura idatzi behar dute (dime@navarra.es).

Martxoaren 27an, ortziralean, ikastaroa aurkeztuko dute. Larunbatean, hainbat tailer eta praktika egin eta ibilaldia hasiko dute. Igandean, ibilbidea akituta, aterpera itzuliko dira.



ARANTXA DIEZ

Musikaz blai Zubietako Herriko Ostaturia

Joan den otsailaren 29an Absurd Fest izan zuten Herriko Ostaturia. Hasieran *La Chula Potra* joatekoa bazen ere, azkenean ez zuen bertaratzerik izan eta Ozpinduk taldeak izan zuen girotzeko ardura. Jendea emanaldia ikustera bertaratu zen.



UTZITAKOA

Zubietako emakumeen otordu ederra

Emakumeen Egunaren aitzakiapean, martxoaren 7an 20 emakume inguru bildu ziren Zubietan egin zuten afarian. Bapo afaldu ondotik, kantuan eta dantzan ibiltzeko aukera izan zuten Joxe Mari Mitxelena eta Olaia Loiarteren eskutik.

Zubietako muslariak Nafarroako kanporaketan

Pili Telletxeak eta Leire Mariezkurrenak Euskal Herriko Mus Txapelketako Nafarroako kanporaketan parte hartu zuten otsailaren 29an. Sailkatze-ko atarian, kanporatu zituzten arren kontent bueltatu dira.



Menu aukera zabala
Jangela pribatua
Bazkal ondorengo festa (aukeran)

Errotalde z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa)
T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com



Zure jaunartzean
besta egun zoragarria!

Martxoaren 10etik pediatria batek artatzen ditu haurrak

Hasiera batean, titularraren bajaren ordezkapena hilabete batekoa izanen da, baina luzatzeko aukerarekin

TTIPI-TTAPA

Ibili eta buelta, badirudi egin-dako harat-honatek bere emaitza izan dutela. Hala, 2019ko azarotik pediatria zerbitzurik gabe egon ondotik, martxoaren 10ean pediatria lanean hasi zen Doneztebeko Osasun Zentroan, Bertizaranako eta Malerrekako haurrak artatuz. Hasieran, titularraren bajaren ordezkapena hilabete batekoa izanen dela aurreikusi dute, baina epe hori luzatzeko aukera izanen da gustura izanez gero eta bajak segitzen badu.

Hilabete mugituak

Azken hilabeteak mugituak izan dira gurasoen artean. Pediatrarik gabe izatearen «larritasuna» ikusita, sinadurak biltzeari ekin zioten Malerrekako eta Bertizaranako gurasoek urtarrelean. Ekime-

nak erantzun ona jaso zuen eta 500 sinaduratik goiti bildu zituzten. Pediatría zerbitzua bermatzeko eskatzearekin batera Osasun Departamentura bideratu zituzten, «gure seme-alaben osasuna jokoan dagoenez, konponbide bat bila dezaten eskatzeko».

Horren ondotik, otsailaren 24an, Santos Indurain Orduña Nafarroako Osasun Kontseilaria Doneztebeko Osasun Zentroan izan zen eta bisita gurasoekin biltzeko aprobeztatu zuen. Bileraren ondotik, ordea, «dena airean» gelditu zela adierazi zuten gurasoek. Pediatrarik gabe segituko zutela uste zutenean etorri zen martxo hasieran berria: Osasun Zentroak jakinarazi zieten martxoaren 9an pediatria lanean hasiko zela. Azkenean, biharamunean hasi zen.



IZASKUN BERTIZ

Beintza-Labaienen sorospen ikastaroa

Joan den otsailaren 26an, oinarritzko sorospen ikastaroa eskaini zuten Beintza-Labaienen, Kristina eta Amaia erizainek. Alderdi teorikoa eta praktikoa lantzeko aukera izan zuten bertaratu ziren 20 lagunek eta, adierazi dutenez «ikaragarri gustura» gelditu ziren.



MIREN URRIZA

Giro ederra Legasako inauterietan

Otsailaren 28an, eskolako haurrak *Egun ttun-ttun* kantari etxez etxe eskean atera zirenean hasi zituzten legasarrekin inauteriak. Handik aitzinera besta giroan ibili ziren. Larunbateko bazkaria jendetsua izan zen, 115 lagun bildu baitziren.



JAIONE ZABALO

Inguruko hondarreko inauteriak Ezkurran

Martxoaren 7an ospatu zituzten inauteriak Ezkurran. Goizean eguraldi txarrari aurre eginez, etxez etxe ibili ziren Oihana eta Irati trikitilariekin. Bazkalondan gazteak baserrietan zeuden bitartean 3 eta 12 urte bitarteko gaztetxoak *Berdintasunari kolorez kanta* ipuin-kontaketa eta tailerra izan zuten.

Martxoaren 8a eskolan, herrian eta eskualdean

Martxoaren 8a ospatu zuten herritarrek: Pulunpa eskolan gaia ikasleekin landu zuten, herriko emakumeak bezperan afaltzeko bildu ziren eta joaldunak, Zubietan eta Aurtizkoekin batera, manifestazioan izan ziren.



Fruta kanpaina ekainera arte eskolan

Aitzineko ikasturtetan bezala, Nafarroako Gobernuak fruta kanpaina martxan jarri du Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan. Haurrek astearte, ortzegun eta ortziraletan, fruta gosalduko dute. Kanpaina ekainera arte izanen da.

Bi herritar Baztandarra Txirrindulari taldean

Indartsu segitzen du Baztandarra Txirrindulari Taldeak, urtez urte ekitaldi eta egitasmoak aitzinera eramanez eta gero eta gehiago antolatuz. Martxoaren 7an aurkeztu zuen taldea Urdazubín. Aurkezpenan izan ziren Ander eta Asier Telletxea, herriko taldekideak.

Ugaitz Elizalde binakako txapelketan

Ugaitz Elizalde berriki hasi den Garfeko Binakako Txapelketan ari da. Guztira zortzi bikote lehiatuko dira, bi taldeetan. Elizalde Iturriaga du atzelari. Titinen, Merinoren, Mariezkurrenaren... kontra ariko da. Navarra Televisionen ikusi ahal izanen da.

Urrezko Aizkora finala jokatu du Maika Ariztegik

Martxoaren 7an Azpeitian ospatu zen Urrezko Aizkora Txapelketako finala jokatu zuen Maika Ariztegi herritarak, Nerea Sorondo eta Irati Astondoarekin batera. Lan txukuna egin zuten hirurek eta aurtengoan txapela Irati Astondoarendako izan zen.



PROMOCIONES
MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



**AUKERA
BIKAINA
Sunbillan!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren arabera finantziarioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Otsailaren 28an alkateek deituta Beran egindako protesta jendetsua.

«Konponbideekiko konpromisoa (edo arduragabekeria)»

N-121-A errepidearen inguruko herrietako 25 alkatek Ramirez eta Ziriza kontseilarien idatzari honela erantzun diote

Martxoaren 1ean, Jabier Ramirez eta Bernardo Ziriza kontseilariak harridura sortu zigun artikulu bat argitaratu zuten Nafarroako idatzizko hainbat hedabidetan. Gure ustez, iritzi publikoa neutralizatzeko saia-kera bat izan da, ulertzen zaila eta justifikatzeko are zailagoa den zerbaiten inguruan.

2+1a defendatzen dute N-121- Aren irtenbide gisa, aitzineko legegintzaldietako gobernuak hartutako erabaki teknikoan emaitza dela erranez (ausardia falta). UPNren gobernuak 2014an egindako 'Iruñea-Behobia «interes orokorreko» N-121-A errepidearen funtzionamenduari buruzko azterketa tekniko» izeneko azterketatik ondorioztatu dute. («Interes orokorra» kakotx artean, grazia egiten digulako).

Berehala adierazi dute obrak udan lizitatu eta urte amaieran hasiko direla, baina noiz bukatuko diren ez digute erran (ausardia falta berriz). Ahalik eta azkarren egokitze lanetan ari direla erratera mugatu dira. Bertzetik, iragarritako obrak lehen zatirako dira, eta egun ez dago aurrekontu-partidarik.

Kalkulatutako 70 milioietatik milioi bat baino ez dago.

Prozesuaren izaera parte-hartzailea aditzera ematen dute, baina oraindik ez dute ebatzi partikularrek nahiz udalek aurkeztutako 485 alegazioetatik bakararra ere.

Epe motzeko hainbat neurri aipatu dituzte, eta bada nabarmentzen den bat: tunelen argiztapena hobetzea! Benetan kezkatzen al dituzte tunelek?

Ez Belatek, ez Almandozek, ez Oieregik, ezta Sunbillak ere ez dute betetzen Europako segurtasun araudia. Lehenengo biak arrisku handiko tune-

lak dira. Badakizue zergatik? Kalifikazioa (bertzeak bertze) haiek zeharkatzen dituzten ibilgailu astunen arabera baloratzen delako. Erraza ulertzeko: zenbat eta kamioi gehiago arrisku handiagoa eta orduan eta kamioi gutxiago kalifikazio hobe, arrisku gutxiago.

Oieregi eta Sunbillako tunelek, egokitze lanen ondotik, azterketa berriak pasa behar dituzte. Eta ezin dugu ahaztu lau tuneletan merkantzia arriskutsuak igarotzeagatik egin beharreko derrigorrezko arrisku azterketak egiteko daudela.

Belate eta Almandozko tunelak legez kanpokoak eta arriskutsuak izanen dira 2025-era arte, data hori aurreikusi delako tunelak bikoizteko. Horrek erran nahi du horiek zeharkatzen jarraitu beharko dugula bertze bortz urtez. Eta tunelak bikoiztea (eskura ez dauden bertze 100 milioi euro) noiz planteatu da? Hain zuzen Kanpo Arazoetako Ministerioak, Nafarroari Europar Batasunaren espediente bat luzatu dionean. Arriskua prebentzioa ala zigorren beldurra?

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak (oraingoz) nazioarteko trafiko astuna A-15era ez desbideratzea erabaki du. Baina erabakia N-121-Aren gorabehera aldakorren arabera berrikeria daitekeela erran du...

Urtarrilaren 30ean parlamentuak mozio bat onartu zuen gobernuari «segurtasuna areagotu eta ez behar kopurua murrizteko N-121-Atik ka-

mioien zirkulazioa mugatzeko hartu beharreko neurriak aztertze» eskatuz.

Urtarrilaren 28an egindako bileran, mahai gainean jarri zuten, 2019an hilkortasunak behera egin zuela, eta horrek zaildu egiten zuela neurriaren justifikazio juridikoa. 2020ko lehen bi hilabeteetan iaz baino hildako gehiago izan dira.

Gogorarazi digute administrazioaren edozein jardura murriztailek behar bezala arrazoituta egon behar duela. Arrazoigutxi iruditzen al zaizue Belateko eta Almandozko tunelak arriskutsu bihurtzea trafiko astunak berak?

Azken lau urteetan gertatutako istripu hilgarrien arrazoiak aztertu ondotik, Foruzaingoa- ren txostenek erantzukizunetik salbuetsi ditu kamioiak. Jakina da heriotza eragin duten istripu gehienetan kamioiak izan direla. Egia da beren erru bakarra leku desegokian egotea izan zela, baina hori da kontua, hor daudela, arriskutsuak direla eta gehiegi direla.

Haien hitzetatik ondorioztatu daiteke egunean 3.000 kamioi baino gehiago ibiltzeak ez dela zerikusirik Nafarroako ez-behar eta hilkortasun handieneko errepide izatearekin; hala bada Nafarroako gidari txarrenak garelako baizik ez da.

Kamioilariak ez ditugu N-121-Ako arriskuaren erantzule egiten, are gehiago, profesional bikainak ez balira, benetako erokeria izanen litzateke. Hala ere, guztien segurtasuna bermatu arte, nazioarteko trafikoa desbideratzeko beharra azpimarratu dugu. Eta ez dugu ongi ulertzen inguruko garraiolari batzuen erresistentzia, neurriak ez dielako eragiten.

Ezin diogu gobernu honi erantzukizun osoa egotzi, baina bere esku du lehen urratsak ematea. Izan zaitezte ausartak eta has zaitezte inguruan jatorririk eta helmugarik ez duen nazioarteko trafiko astuna A-15etik desbideratzen, horretarako eraiki baitzen. Edo ez? **Idatzia osorik:** ERRAN.EUS

Sinatzaileak

J. Unanua (Igantz), L. Satrustegi (Lesaka), A. Inda (Sunbilla), P. Lezaun (Ezkabarte), M. Pikabea (Ultzama), J. Otondo (Baztan), M. C. Lizoain (Olaibar), D. Iturria (Arantza), J. Telletxea (B. Labaien), A. Elexpuru (Bera), M. M. Irigoien (Etxalar), X. Uterga (Doneztebe), E. Dominguez (Zubieta), J. Bereau (Ituren), E. Lakasta (Basaburua), N. Rekarte (Donamaria), M. A. Larraioz (Anue), A. Otxandorena (Elgorriaga), J. Zabalo (Ezkurra), A. Arruiz (Uhart), I. Baleztena (Lantz), I. Estanga (Eratsun), J. Zozia (Urroz), U. Zelaieta (Oiz) eta A. Etxenike (Bertizarana).

Atekaberts komeni seguru da Lizarrako Bardoen finalean

Leitzarrekin batera, asteburuko saioen faltan, eskualdeko bertze bi talde aritzeko ere aukera handiak zeuden

TTIPI-TTAPA

2020ko Bardoen finala martxoaren 28an jokatu da Lizarran. Leitzako Atekaberts komeni taldea izan da finale-rako txartela lortu duen lehen-a, Sakañaren kontrako bi saioak irabazi ondotik. Bar-doetako azken edizioan txapel-dun izan zen Leitzako tal-dea.

Hau idazterakoan oraindik ez zen seguru, baina leitzar-rekin batera, finalean eskual-deko bertze bi talde izateko aukera handiak zeuden. Izan ere, martxoaren 7an Tafallan,

Barañaingo Hego Haizea eta Berako Lamixene taldeak izan ziren kantuan, parez pare. Lehen taldearen ordezkari gisara, Ainara Ieregi, Endika Legarra, Iñigo Aranguren *Pika* eta Sahats Aleman aritu ziren bertsotan. Beratarren partetik, Ekhiñe Zapiain, Julen Zelaie-ta eta Patxi Castillo ziren kan-tuan. Lepo bete zen Tafallako Aguazon peña, eta giro alai-joan zen saioa.

Berako taldeak eskuratu zuen saioko puntua, eta beraz, lehen urratsa eman zuen Lizarrako finalean sartzeko. Dena den,



Berako eta Barañaingo taldeak Tafallako saioaren ondotik. UTZITAKOA

Tafallakoa joaneko saioa zuten bi taldeek, eta itzulikoa joku-tu behar zuten larunbat ho-netan Jaunsaratsen, bietatik zein sailkatzen den erabaki-tzeko.

Larunbatean erabaki da

Jaunsaratsekoarekin batera, bertze saio bat gehiago ere jokatzekoa zen larunbatean Goizuetan. Lesakako Arrano-pola eta Malerrekako Bertso-nautak taldeak aritzekoak

ziren kantuan. Joaneko saioan, Malerrekakoentzat izan zen puntua, baina Goizuetako saioak zehaztu izanen du hi-rugarren finalista nor den. Hemen, Bortzirietakoa ala Malerrekakoa, eskualdekoa izanen da.

Finalerako eta ondotik izanen den afarirako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian, bai eta Lizarra Ikastolan eta Lizarrako Beinat Etxepare Euskaltegia ere.



bardoak

2020

Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa
Urtarrilaren 31tik Martxoaren 28ra

Finala

LIZARRA

Martxoak 28, larunbata
17:00etan, Lizarra Ikastolan

Sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eus-en

Antolatzailea



www.bertsozale.eus

Laguntzailea



Karrape irratia Internetez entzuteko aukera izanen da

Udala 'leitza.eus' webgunea berritzen ari da eta bertan tokia eskainiko diote irratari

TTIPI-TTAPA

Herritar zein bisitarientzat interesgarria izan daitekeen informazio biltzeko, *leitza.eus* web orrialdea martxan jarri zuen duela urte batzuk Leitzako Udalak. Zerbitzua hobetze aldera, informazioa osatu eta erabilerrazagoa izateko, web orrialdea berrantolatzen hasi zen irailean udala.

Izanen dituen berrikuntzen artean, Karrape Irratiari eskainitako txokoa izanen da. Eguneraketa bukatutakoan irratia Internet bidez entzuteko aukera izanen da. Unai

Zabaleta Karrape irratiko esatariak aurrerapauso handia izanen dela azaldu du: «jende gehiagorengana iristea lortuko dugu, edozein txokotatik irratia entzuteko aukera izanen delako. Hala, herritik kanpo daudenek ere entzun ahalko gaituzte».

Lanak egin bitartean

Ahalik eta lasterren web orria martxan izatea nahi dute eta horretan ari dira lanean. Bien bitartean, azken albisteen berri izan nahi dutenek sare sozialetara jo dezakete.

Julen Baleztenak irabazi du Zizurko txapelketa

Aurrera Elkarteko Julen Baleztena Otxotorenak Zizurko lau eta erdiko txapelketan parte hartu zuen alebiren mailan eta txapela buruan zuela egin zuen etxerako buelta. Finala Etxanizen aurka jokatu zuen eta 16 eta 11 irabazi zuen.



Julen Baleztena finalean. ARDOI PILOTA

Goiuri Zabaleta irabazle herrian jokaturako finalean

Martxoaren batean, Nafarroako Kirol Jokoetan nesken eskuz binakako pilota txapelketetako finalak jokatu zituzten Amazabal pilotalekuan. Goiuri Zabaleta Rodriguez izan zen herriko ordezkari bakarra eta infantil mailako txapela irabaztea lortu zuen.



Goiuri Zabaleta (eskuinean). UTZITAKOA



E. IRAOLA

Izena eman, izana aitortzeko

Martxoaren 8an kaleak bete eta eraldatu zituzten. Kalejira berezia osatu zuten; herriko sei kaleri, herriko sei emakumeren izenak emanaz. Horrela, hainbat muga gaindituta, hainbat esparrutan egindako lana aitortu nahi izan zieten. Bazkaria eta bazkalosteko akelarrearekin borobildu zuten eguna.



Talde politak osatu zuen martxoaren 1ean Leitzako hiru milak ibilbidea.

Zumaia-Deba ateraldia antolatu dute Mendibilekoek martxoaren 28rako

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 1ean Leitzako hiru milak osatu ondotik, hilabeteke bigarren itzulia egitekoan dira Aurrerako Mendibil taldekoak. Martxoaren 28rako, hilabeteke azken larunbaterako, egin dute hitzordua eta Zumaia-Deba arteko bidea osatuko dute, Flyschen ibil-

bidean barna. Irteerara joaten direnek kostaldeko paisaia zoragarriaz gozatzeko aukera izanen dute. Ohikoa denez, irteera baino bizpahiru egun lehenagora arte egonen da izena emateko modua, Astiz eta Maimur liburu-dendetan edo Aurrera elkartera email bat idatzita.

Kiroldegiko bazkide eta erabiltzaile kopuruak gora

Anikote kiroldegiko arduradunek azken urteetako bilakaera oso positiboa izan dela adierazi dute

TTIPI-TTAPA

Herriko kirol zerbitzua kudeatzeko 2016an sortu zuen Leitzako Udalak Anikote enpresa publikoa. Lau urte igaro direnean, balantzea egin eta balorazio oso positiboa egin dute arduradunek: «urte urte erabiltzaile eta bazkide kopuruak gora egin du. Nabarmena izan da emakumeen gorakada, 2016an baino bi aldiz gehiago dira orain. Anikotek hasierako helburuak bete dituela esan daiteke».

Datuak erakusle

Datuak jarri dituzte mahai gainean. Anikote enpresa publikoa sortu zen momentuan 329 bazkide zituen kiroldegia; 98 emakume eta 231 gizon. 2019an, 210 dira bazkide diren emakumeak eta 292 gizonezkoak.

Ikastaroen eskaintza ere zabaldu dute eta horrek erabiltzaile kopuruan eragin nabarmena izan du. 2016an 136 emakume ziren erabiltzaileak eta 30 gizonezko. 2019an, berriz, 320 dira ikastaroetan izena emana duten emakumeak eta 91 gizonezkoak. Eskaintza zabaltzeak, kiroldegiko langile kopuruan ere izan du eragina, duela lau urte sei emakume eta sei gizon izatetik; gaur egun, hamaika emakume eta zazpi gizonezko izatera igaro baita (plantillakoak, uda-koak eta monitorea).

Bilakaera ikusita, eskerrak eman nahi izan dizkiete herriarrei: «erakutsitako konfiantza eta leialtasunari esker lortu ditugulako hain datu onak. Herriarrek honen aldeko apostua egin gabe, kiroldegia ez zen aurrera aterako».

Bertatik Bertara mahaia urte osoko plangintza zehaztu du

TTIPI-TTAPA

LeitzEko Kontsumo Taldeak, Leitzeta eta Aresoko ekoizleek, herriarrek, Cederna Garalurreko ordezkariak eta Leitzako Udalak osatzen dute Bertara Bertara mahaia. Urteroko batzarra egin zuten otsailean eta bertan adostu zituzten ekintzen berri eman dute orain. Sei dira momentuz, antolatu dituzten ekimenak: apirilean, Nekazaritza Politika Bateratuari buruzko hitzaldia izanen dute; maiatzean, baserria ezagutzeko ekimena egingen dute eta baserriarren afaria. Ekainean,

baratzegintza ikastaroa izanen dute eta udako atsedendia- ren ondotik, irailean Beterriko KM0 ezagutzeko bisita antolatu dute. Urrian, bertako produktuen txokoa jarriko dute ostiraleko azokan, hitzaldi bat ere antolatuko dute eta *La jeune bergère* dokumentalaren emanaldia. Guztia borobiltzeko, azaroan Leitzako eta Aresoko produktuen azokak ere ez du hutsik egingen. Data hurbildu ahala, ekitaldi bakoitzari buruzko informazio gehiago emanen dutela jakinarazi dute.



H. DELGADO

Egun batez ipuin-kontalari

Hamaika ipuin aditu izan dituztenak sortzaile bihurtu dira. Hitzak aukeratu, irudiak margotu... mimoz osatu dute Erleta eskolako bost urteko ikasleek Gazteluko abentura ipuina eta otsailaren 27an jendaurrean kontatu zuten beraiek sortutako istorioa. Txundituta utzi zituzten ikusleak.



E. IRAOLA

Jende ugari XII. Stock Azokan

Pagotxaren bila asko izan ziren martxoaren 7an eta 8an Amazabal pilotalekura hurbildu zirenak. Kaxkabeltza Elkarteak antolatuta, Stock Azoka egin zuten eta udazken-neguko salgaiak prezio berezietan eskuratzeaz gain, saski eder bat irabazteko aukera ere izan zuten erosleek.



ETXE TRESNAK S.L.

MARTXOA eta APIRILA,
KOLTXOIAREN
HILABETEA



244 €

PIKOLIN KOLTXOIA,
SOMIERRA, BURKOA
(90 cm x 190 cm)

780 €

PIKOLIN KOLTXOIA,
SOMIER ERAISGARRIA
(150 cm x 190 cm)

%30 eta %50

bitarteko deskontuak
koltxoietan eta
burkoetan

Etorri lasai Etxe Tresnak-era, galdetu eta ikusi!

Koltxoia etxean jasoko dituzu, eta nahi izanez gero, zaharrak bilduko dizkizugu.

T. 948 510 181 · T. 948 510 208 · Elbarren, 45 · LEITZA



Otsailaren 25ean egin zuen zuzendaritza batzarrik bilkura. PABLO IRASORTZA

Zuzendaritzak iazko balantzea aurkeztu du

Mendi irteeretara joateko federazioko aseguru txartela eguneratua izatea eskatu dute

PABLO IRASORTZA

Otsaila bilkuren hilabetea izan dute elkarteak, bai zuzendaritza batzordea baita mendi batzordea bildu dira eta.

Zuzendaritza batzordea

Otsailaren 25ean egin zuen Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordeak 2020ko lehenbiziko bilera. Gai nagusi bezala, joan den urtean antolatutako ekintzak eta egungo egoera ekonomikoa izan zituzten eta emaitzak aho batez onartuak izan ziren. Iaz izandako ekintza guztiak (ikastaroak, udal kiroldegi eta igerilekue-tako aferak, soinketa saioak, hitzaldiak, egun bateko txangoak, egonaldiak...) zuzen arraio joan ziren.

Ekonomia aldetik, kontent izateko datuak eskaini dituzte, diru-sarreraren eta gastuen oreka lortu dutelako. Gogorazi behar da, arlo honetan, elkar-tearen sos-poltsa ez dadin soberan arindu eta epe laburrean zentzurik gabeko diru zorretan ez dadin sartu, lehen aipaturiko ekintzen parte-hartzaileei (kontutan izanik kopurua, azken bi urtetan bikoiz-

tu dala) dirulaguntza eguneratzea erabaki zuela elkarteko batzordeak 2019an.

Mendi batzordearen erabakiak

Mendi irteeren nondik nora-koetan ere tarteka ukituren bat behar izaten baita, otsailaren 18an, Beran, mendi batzordea bildu ondoren, honako akordio hauek hartu zituzten.

Batetik, irteera bakoitzaren antolatzaileak, data baino hilabete bat edo bi lehenago adieraztea batzordeari zein diren txangoaren ezaugarriak, hau da, gehieneko jende kopuru onartua zenbatekoa izanen den, bai mendirako, bai jatetxerako, baterako edo bertzerako mugarik izanez gero.

Bertzetik, Arkupeak elkarteak antolatutako mendi irteeretako partaideek, derrigorrezkoa eta behar-beharrezkoa izanen dutela mendi federazioko aseguru txartela eguneratua izatea. Asegururik izan ezean, Arkupeak elkarteak ez du inolako erantzukizunik izanen, partaideren batek izaten ahal lukeen ezuste, gertaera edo istripuetan.

Elkarteko 50 lagun Bartzelonara joanen dira maiatzean

Otsaileko bigarren TTIPI-TTAPAN adierazi bezala, hilabete berreko 24a, 25a eta 26a ziren Bartzelonako bidaiaren izena emateko egunak. Maiatzaren 4tik 7ra, astelehenetik ortzegunera bitarte, Bartzelonara egingen den bidai horretan parte hartzeko denetara 50

lagunek eman dute izena. Lehenbiziko egunean -autobusez- etxetik Kataluniako hiriburura joanen dira eta hurrengo bi egunetan bertako karrika, auzo, plaza eta leku ospetsuak bisitatuko dituzte. Azkenik, laugarren egunean, etxe aldera abiatuko dira.

Mus Txapelketako finalistak erabakita, finalerako prest

Otsailean eta martxoan herriko mus txapelketa guztiak ospatu dituztenez, TTIPI-TTAPAREN aurreko bi zenbakietan aipatutako sailkatuek gain, hauek dira martxoaren 26an, hondarreko ortzegunean, 09:30ean hasita, Donezteben jokatu duten finalean parte hartuko dutenak.

Leitzatik Isabel Huarte eta Maria Asuncion Betelu, Jose Maria Aizagirre eta Jose Maria Etxeberria eta Maria Engracia Buldain eta Juan Jose Zabaleta joanen dira; Saldias eta Beintza-Labaiendik Jose Ra-

mon Etxeberria eta Maritxu Telletxea, Julian Erasun eta Santos Berasain; Arantzatik Santiago Iparragirre eta Fermin Etxeberria, Felix Iparragirre eta Miguel Maria Alzuri; eta Doneztebe, Urroz, Donamaria, Gaztelu eta Oiztik Mikaela Zenoz eta Ana Maria Etxeberria, Joaquin Ilarregi eta Jesus Mangado, Jose Jorge Urroz eta Santiago Telletxea; Sunbilla-tik Jose Maria Arretxea eta Juana Maria Agirre, Miguel Anzizar eta Jose Vicente Alzuri eta Gregorio Agesta eta Estefania Agesta.



P. IRASORTZA

Hagitx gustura ibili dira Donostian

Elkarteko 149 lagunek Donostia bisitatu zuten otsailaren 20an. Eguzki ederra lagun, alde zaharra, kaia, udaletxea, lorategiak, plazak... bisitatu zituzten. Ondoren, Urnietako Oianume sagardotegian bazkaldu zuten. Joxe Angel arduratu zen bazkalondoko musikaz.

«Tokiko elikagai ekologikoek eskola jantokietako oinarria izan behar lukete»

Eskoletako jantokietan aldaketa sakon eta erradikala egiteko beharra aldarrikatu dute Iruñean egindako agerraldian



Eskualdeko hainbat ordezkari martxoaren 11n Iruñean egindako agerraldian.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak laster onartuko ditu eskoletako jantokietako pleguak eta horiek osatzeko bidean parte-hartze eta informazio prozesurik egon ez denez, kezka sortu da udal ordezkarien, elikadura arloko ekoizleen, nekazarien eta langileen, hezkuntza arloko ordezkarien eta elikadura burujabetzaren eta elikadura osasungarri eta iraunkorraren alde lan egiten duten kolektiboen artean. Guztiak bildu ziren martxoaren 11n Iruñean, «pleguetan irizpide jasangarri eta osasungarriak har ditzatela eskatzeko».

Mikel Zabaleta Leitzako alkateak eta Joseba Otondo Baztango alkateak hartu zuten hitza eta eskoletako jantokietatik bertako elikagaietatik eta bertako sukaldaritza eta kulturatik geroz eta gehiago aldentu direla salatu zuten: «hamarkadak dira elikadura enpresa handien mesedetan egindako ereduaren murgildu zirela, modu deslokalizatuan, kilometrikoan eta jasanezinean garatzen den ereduaren, hain zuzen ere».

Eskolak etorkizuna, osasuna eta kontzientzia lantzeko lekuak direla ere nabarmendu zuten eta horregatik, joera negatibo hori iraultzeko neurri politiko zehatz eta sakonak hartzea eskatu zuten: «beharrezkoa eta lehentasunezkoa da elikadura-subiranotasuna politika publikoen erdigunean jartzea eta elikagai freskoak, tokikoak, sasoikoak eta ekologikoak eskoletako jantokiaren oinarri izatea».



Imanol AZPIROZ GOICOECHEA, Irurita >

«Proiektuetan oinarritutako metodologia oso egokia da»

Imanol Azpiroz Goicoechea (Irurita, 22 urte) Mondragon Unibertsitatean Mekanikako Ingenieritza graduko 3. maila ikasten ari da.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu zaletasunik?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa Lekaroz institutuan ikasi nuen. Horiek amaituta, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) hasi nintzen Ingeniaritza ikasten eta bi urte beranduago, Mondragon Unibertsitatean jarraitzea erabaki nuen. Futbola eta frontoi kirolak dira nire zaletasunak.

Zergatik aukeratu zenuen Mekanikako Ingenieritza gradua?, Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik industriako jarduerak eta motorrak erakarri naute, hori dela eta gradu hau aukeratzeko erabaki nuen. NUP-en egon ondoren, MU-ra pasatzeko erabaki nuen; hemen atal praktikoa gehiago lantzen delako.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia positibo bezain gogorra. Ikasgaien egitura dela eta, eguneroko lanera bultzatzen zaituzte, adibidez, praktikak eta aurkezpenak egiten. Nahiz eta gogorra egiten den, teoriarik ikasitako ezagutzak modu egoki batean barneratzea lortzen duzu, pausoka pausoka, eta azterketara begira oso lagungarria da. Horrela azken ordurako aurretik egindakoa errepasatzea besterik ez da geratzen. Honetaz gain, aipatutako praktiketan laborategi nahiz tailerretara joaten gara, eta horrek bertan dauden makina eta tresneria ezberdinekin familiarizatzen laguntzen digu.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasketako metodologia?

Egokia, izan ere, proiektuetan oinarriturik dago, PBL metodologia erabiltzen dugu. Sei hileko bakoitzean proiektu jakin bat garatzen da. Proiektu



horietan seihilekoan zehar ikasitako ezagutzak aplikatzeaz gain, ezagutza berriak ere landu beharra egoten da. Proiektu horiek guztiak ekipoen egiten dira eta, horrek, zeharkako kompetentziak lantzea ere ahalbidetzen du, adibidez, talde lana, komunikazioa, erabakiak hartzea, etab.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Alde positibotzat, irakasle eta ikasleen artean dagoen etengabeko eta konfiantzazko komunikazioa nabarmenduko nuke. Errekurtso aldetik ere unibertsitatea ondo prestatuta dago. Agian, hobetzekoan liburutegia sartuko nuke, ez da txikia, baina batzuetan txiki geratzen da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

4. mailari begira, hiru aipamenen artean fabrikazio prozesuetan espezializatzeko asmoa daukat. Gradua bukatzerakoan, masterra egin ala ez baloratuko dut. Etorkizuneko lanpostuari begira, Mondragon taldeko kooperatibaren batean motorren pieza ezberdinen fabrikazioan jarduten duen enpresa batean lan egitea gustatuko litzaidake.

www.mondragon.edu/prest

Arainburu Mendi Taldeak larunbatean du aurreneko irteera

Goiko zentraletik hasi eta Sasaingo errekarari buelta emanen diete, Jose Jabier Etxeberria gidari dutela

TTIPI-TTAPA

Arainburu Mendi Taldeak larunbatean hasia da dagoeneko. Argazkiko kideek osatuko dute batzordea (Mirari, Naroa, Patxi eta Olatzek) eta lehendabiziko irteera prestatua dute martxoaren 21erako.

Goiko zentraletik hasi eta Sasaingo errekarari buelta emanen diete. Jose Jabier Etxeberria izanen dute gidari eta hiru orduko ibilbide erraza da antolatzaileen esanetan.

Herriko plazan, 09:00etan egingen dute hitzordua eta handik kotxez joanen dira Goiko zentralera. Han hasiko dute



Mendi taldeko batzordeko kideak.

ibilaldia eta 11:00k aldera hamaiketako egiteko geldialdia egingen dute (bakoitzak eraman beharko du). Eguerdian, 12:00ak aldera bueltan izanen dira plazan.

Dama Beltzak taldeak kontzertua eskainiko du martxoaren 28an

TTIPI-TTAPA

Musikaz gozatu nahi duenak aukera bikaina izanen du hilaletako azken larunbatean. Udaletxekoganbaran, 19:00etatik aurrera, kontzertua eskainiko du Dama Beltzak taldeak. Estitxu Pinatxoren ahotsa oinarri hartuta, Mikel Santxe-

zen piano eta gitarra doinuek jantziko dituzte dama beltzen abestiak. Proiektu honekin, musikaren bitartez iraultza eta borroka egin zuten dama beltz batzuei egindako lana aitortu nahi diete. Besteak beste, Fitzgerald, Flack, Simone, James eta Franklini.

Mirari eta Xole Etxegia txapelkun Hondarribian

Etxegia ahizpak nagusi izan dira Hondarribiko pala txapelketan. Hamabi bikotek parte hartu zuten eta horietatik hiru sailkatu ziren martxoaren 7an jokatu zuten finalera. Partida estua jokatu, Tijero eta Gonzalezen aurka nagusitu ziren herritarrak.



Etxegia ahizpak podioan.



A. ESKUDERO

Herria eta herritarrak morez jantziak

Martxoaren 7an *Munduko emakumeak* helduentzako ipuin kontaketa musikatuz gozatzeko aukera izan zen. Igandean, berriz, morez jantzi zituzten herriko kaleak. 12:00etan lilatoi mistoa egin eta bazkaria egin zuten gero. Arratsaldeko kalejirarekin eman zieten bukaera egunari.

Katarrapikaka ttikia lehiaketa martxoaren 27an

Herriko gaztetxoak izanen dira Katarrapikaka lehiaketaren edizio honetako protagonistak. Martxoaren 27an izanen da, 19:00etan ganbaran, eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak, DBH 1 eta DBH 2ko ikasleek izanen dute parte hartzeko aukera.

Goizuetarrak ere 'Egunean behin' lehiaketan

Egunean behin lehiaketan *Goizuetarrak* taldean pike ederra izaten da. 66 partaide ditu taldeak, eta oraindik taldean sartu ez denak, AB842F klabearekin sartu ahal izanen du. Ea nork asmatzen duen hamar galderei ongi eta azkar erantzuten!

Harategia Leitzako Lizarragaren esku geldituko da

Urtetan herriko harakindegiaren ardura izan duen Ximon Apezetxeak martxoaren 3an utzi zuen negozioa. Eskatutako baldintzak bete eta zegokion prozesua bete ondoren, Leitzako Juan Ramon Lizarraga harakinak hartuko du bere lekukoa.

Artikutza Natura programaren bisita gidatuak martxoan

Donostiako Udalak eskaintzen duen Artikutza Natura programak hiru bisita gidatu prestatu ditu martxorako. Hauek normalean Oiarzungo Eskas-etik abiatzen badira ere, martxoaren 22koa Arriurdinetatik abiatuko da, herritarrentzat eskuragarriago.

Kontsumo taldea sortzeko bildu dira herritarrek

Martxoaren 27an, hilabeteko azken ostiralean, egingen dute hurrengo bilera 18:00etan

OHIANA KALPARSORO

Herriko ekoizleak eta erosleak harremanetan jartzeko kontsumo taldea sortzen ari dira herritarrek. Lehenbiziko bi bilerak egin dituzte eta lan ildoetako batzuk zehaztu dituzte.

Ezertan hasi aurretik, herritarrek zer eskaini dezaketen bildu nahi dute eta argi aipatu dute ez dutela zertan barazkiak izan: «xaboia, marmelada, ezti, formazio ikastaroren bat... herritarrentzat interesgarria izan daitekeen zerbait eskaintzeko duen orok izan den du tokia».

Eskaintzak taldean bota eta eskariak ekoizleari zuzenean egitea adostu dute eta horretarako prezioak finkatuko dituzte denen artean. Araudi bat sortzeko beharra ere ikusi dute eta herritar guztien



Kontsumo taldeko kideak.

ekarpenak bildu nahiko lituzkete. Lehenbiziko zertzeladak emanak dituzten arren, asko dute oraindik ere hitz egiteko.

Herriarentzat aberasgarria

Horregatik, hirugarren bilera deitu dute ostiralerako, martxoaren 27rako. 18:00etan egin dute hitzordua eta herritar guztiei egin diete bertaratze-ko proposamena «hartu-eman hau herriarentzat aberasgarria izanen delako».



O. KALPARSORO

Ipuinak Emakumeen Eguna girotzeko

Denborak ahaztutakoak ipuin kontaketa musikatuz gozatzeko aukera izan zuten herrian martxoaren 7an Ameli eta Xirrikietuen Jostunak taldearen eskutik. Martxoaren 8an, berriz, Ereñozura *Amak* ikuskizuna ikustera joateko hitzordua egin zuten emakumeek eta ondoren afaria.



J. ARRARAS

Betaurreko moreak mundua ikusteko

Ostiralean hasi ziren ospatzen aresoarrak Emakumeen Eguna. Hasteko, ikasle eta gurasoak bildu ziren eskolan, betaurreko moreak jantzita euren bizipenak partekatzeko. Gero, ipuin kontaketa izan zuten udaletxean. Martxoaren 8an, berriz, emakume afaria egin zuten Pake Toki elkartearen.



E. IRAOLA

Martxan da liburutegi ibiltaria

Liburutegi ibiltaria hasi da martxan. Otsailaren 27an, izan zuten aresoarrek Harkaitz Delgado Leitzako liburutegian bisita. 14:15ean egin zuten hitzordua udaletxean eta liburutegiko bi kaxa ekarri zituen berekin. Hurrengo hitzordua martxoaren 26an izango dute.

Zuhaitz landaketa egingo dute hilabete bukaeran

Guraso Elkartek antolatuta, zuhaitz landaketa egingo dute udaberri atarian. Martxo bukaeran egingo dute asma dutela aurreratu dute eta data zehatza eguraldiaren arabera zehaztuko dutela. Urtetako ohitura mantenduta, herriko basoetan kimu berriak haziko dira.

Gipuzkoako mugako itxitura berritzen ari dira auzolanean

Mendiak zaintzearen ardura herritarrena ere badelako, auzolanean ari dira berritzen Gipuzkoako mugako itxitura. Udaleko hainbat zinegotzi eta herritarrek elkartzen dira eta, besteak beste, hondatutako hesolak kendu eta berriak jartzen ari dira.



BRTko jokalariai otsailean jokatutako partida batean. PELLO SAN MILLAN

Baztan Rugby Taldearen gaupasa martxoaren 28an

Afarirako txartelak salgai daude martxoaren 25era arte Elizondon eta Donezteben

TTIPI-TTAPA

Kirola baino gehiago da errugbia Baztan Rugby Taldekoenak. Baloirik gabe ere izaten dute gozatzeko tarterik eta horren erakusgarri da urtero antolatzen duten gaupasa. Aurten martxo hondarrean, hilaren 28an, dute hitzordua eta, ohi bezala, Larraintzarko frontoian izanen dute ospakizun handia.

Mahaiaren inguruan bilduz hasiko dute gaualdia. 21:30ean zikiro jatea eta ondotik kantu zaharrak izanen dituzte gozagarri. Afarira joan nahi dutenek txartelak aitzineko asteazke-

nera arte (martxoak 25) salgai dituzte Elizondoko Intza ostatuan edo Doneztebeko Titin.

Gorputzak mugiarazteko tarteak 00:30ean hasiko da. Los Tajudos del Norte eta Trikidantz taldeen eskutik, kontzertuak izanen dituzte. Segidan, Kiriki DJak hartuko du lekukoa.

Parte-hartzaileen artean *Di-vertisen* gastatzeko 300 euroko erosketa-txartel bat eta eskualdeko produktuak zozketatuko dituzte. Gainera, etxera bueltatzeko autobus zerbitzua ere izanen dela jakinarazi dute (Doneztebe-Elizondo-Iruñea).

Apirilaren 2an irekiko da komiki erakusketa

Apirilaren 2tik 13ra Elizondoko Arizkunenea kultur etxean Ernest Sala artista katalanaren komiki erakusketa ikusteko aukera izanen da. Dolores Redondoren *Baztango Trilogia* ardatz sortutako komikia da, hain zuzen, ikusgai paratuko dutena.

Baztandik bi bikote Euskal Herriko mus finalera

Otsailaren 29an Iruñean jokatzen zen Nafarroako mus txapelketa finala. Guztira 160 bikotek parte hartu zuten. Aritz Alunda eta Garikoitz Larretxeak eta Beñardo Alunda eta Jose-lu Retegik martxoaren 14an final handia jokatzen txartela lortu zuten.



UTZITAKOA

Bailableak Arraioztik Elizondora doaz

Martxoaren 1ean, hilabeteko lehendabiziko igandean, jendetza bildu zen Arraiozen muxikoak, jotak eta larrain-dantzak dantzatzeko. Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak antolatuta, hurrengo hitzordua apirilaren 5ean izanen dute, Elizondoko plazan, 12:30ean.



NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsonautak nagusi Anizen

Otsailaren 29an Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak izan ziren Anizen. Saioa hasteko, Anizko haurrek agurra eta ongietorria egin zuten eta ondotik Malerreka eta Bortzirietako bertsolariak kantuan aritu ziren. Mendiarte Kultur Elkartea lepo bete zen. Bertsonautak taldea izan zen nagusi.

Ohariz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
TALDE DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Baserriko uzta ezagutzeko eguna apirilaren 4an Anizen

Bisita gidatua, bazkaria, kontzertua eta dantzaldia izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko bio-baserriar agroekologiko eta herritarren kolektiboak antolatuta, Anizko uzta ezagutzeko eguna izanen dute apirilaren 4an, larunbatean, Anizen. Goizean Jauregia esnekiak baserrirat bisita egingen dute. Ondotik,

Jauregiko produktuekin luntxa dastatuko dute. Pettiren musika doinuak adituko dira Jauregiko behien heian. Bazkalteko jateko ekologikoa izanen dute eta bazkalondan dantzaldian bilduko dira. Herriko uzta ezagutzearekin bat, egun ederra pasatuko dute.

Estitxu Pinatxoren kontzertua igandean Elizondon

Kultura batzordeak antolatuta, heldu den martxoaren 22an, kontzertua izanen dute Elizondon, Arizkunenean. Estitxu Pinatxo abeslari beratarraren ahotsak goxatuko du kultur etxea. *Haize gorri batek* lana ezagutaraziko du 19:00etan hasiko den emanaldian.



Estitxu Pinatxo.

'Oztoporik gabe, hobe!' erakusketa apirilaren Elizondon

Irekibaik antolatuta, *Oztoporik gabe, hobe!* erakusketa paratuko dute apirilaren 1etik 28ra, lau astez, Elizondon. Arizkunenea Kultur Etxean ikusi ahal izanen da ilustrazioak, mapak, grafikoak eta bertzelako irudi ikusgarriak biltzen dituen erakusketa.

Baztan Kantuz martxoaren 22an Oronoz-Mugairin

Eztarriak prest dituzte baztandarrek Baztan Kantuz egitasmoaren martxoako geldialdirako. Oronoz-Mugairin bilduko dira, heldu den igandean, hilaren 22an. 12:00etan. Urgain jatetxe ataritik abiatuko dira eta, ordubetez, karrikak kantuz girotuko dituzte.



NEREA MORTALENA

Arraioztarrek 60 zuhaitz landatu dituzte

Otsailaren 22an, argazkian ageri diren Arraiozko guraso eta gaztetxoak zuhaitzak landatzen aritu ziren. Eguraldi ederra tarteko, momentu polita pasatu zuten. Denen artean 60 zuhaitz inguru landatu zituzten. Ea ereindako haziak uzta oparoa ematen duten!

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

Bizikleten salmenta eta konponketa.
 Kanttonberri, 1 | BERA
 T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ANZABAL
 inmobiliaria

- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Udalak hondakinak kudeatzeko irizpideak finkatu ditu

Prebentziorako, kudeaketarako eta garbiketarako irizpideak zehaztu ditu eremu publikoetan egiten diren ekitaldietarako

TTIPI-TTAPA

Baztango eremu publikoetan antolatzen diren ekitaldietan hondakinak kudeatzeko irizpideak finkatu ditu Baztango Udalak, otsailaren 28ko Tokiko Gobernu Batzordean hartutako erabakiaren bidez. Irizpide horiek finkatzearen helburua hondakinen sorkuntza ttipitzea da, izaera prebentiboa duten neurri zehatzen bidez; baita hondakinen kudeaketa egokia egitea (horien bereizketa eginez) eta eremuaren garbiketa bermatzea ere.

Zehazturiko irizpideek eremu publikoan antolatzen diren ekitaldi guztiei eraginen diete, antolatzaila normahi dela ere. Erabileen ardura izanen da horiek behar bezala betetzea.

Neurriak

Batetik, hondakinen prebentzioari begira, posible den guztietan iturriko ura eskaintzea arautu dute eta, beraz, plastikozko botilak debekatuak izanen dira. Horrez gain, erabilera bakarreko ontziteria debekatua izanen da (antolatzaila udal txan baxera



Hondakinak gutitzea da helburua.

berrerabilgarria eskatzeko aukera izanen dute).

Hondakinen kudeaketari dagokionez, sortutako hondakinak behar bezala kudeatu beharko dira (organikoa barne). Horretarako, udalean hondakinak bereizteko ontziak eskatzen ahalko dira.

Azkenik, eremu publikoa erabiltzen dutenek, ospakizunaren aitzinetik zegoen bezala, hau da, «garbi» utzi behar dutela zehaztu dute. Udalak, hori bermatzeko, ekintza dimentsiora eta sortutako zikinkeria egokitutako fidantza bat eskatuko die antolatzaila.



PELLO SAN MILLAN, DANTZAN.EUS ETA VALLEDEBAZTAN.COM

Arizkungo eta Erratzuko inauteriak

Otsailaren 25ean, asteartean, akitu ziren Arizkun eta Erratzuko inauteriak. Arizkun karrikaz karrika sagardantza dantzatzen ibili ziren herritarak; Erratzun, berriz, dama zuriek eta gisa guztietako moztarrok girotu zuten ingurua.

Artisauen azoka martxoaren 21ean Elizondoko plazan

Heldu den larunbatean, martxoaren 21ean, 11:00etatik 14:00etara, Baztango artisauak postuak paratuko dituzte Elizondoko plazan. Azokara bertaraten direnek eskulangleek mimos egindako salgaiak ikusi eta erosteko aukera izanen dute.



Bertako produktuak salduko dituzte.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304


Musika sintestesikoa ardatz duen kontzertua Elizondon

Miren Karmele Gomezek sinestesikoa izateak zertan eragiten dion azalduko du eta Alicia Torrea musikariak parte hartuko du

TTIPI-TTAPA

Miren Karmele Gomez dibulgatzaile zientifikoa eskutik, sinestesia zentzumen-fenomenoa zer den eta sinestesikoa izateak zertan eragiten dion ezagutzeko aukera izanen da apirilko lehendabiziko igandean, hilaren 5ean, Elizondon eskainiko duten kontzertuan.

Aldi berean, Alicia Torrea piano-jotzaileak musikagile sinestesiko batzuen obrak interpretatuko ditu, bertzeak bertze, Scriabinenak. Izan ere, musikagile horrek soinuaren eta tonuen eta koloreen eta tonuen



Gomez sinestesiaren ariko da.

arteko harremanak hautematen zituen.

Arizkunenea Kultur Etxean dute kontzertua, iluntzean, 19:00etan.



Harri-lubeta egin, zola eman eta baranda paratu dute. UTZITAKOAK

Iruritako eskuineko errekan bidea ez erortzeko lanak egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Iruritako eskuineko errekan, Auztei parean, bidea desegiteko puntuan egon da. Azpiko aldea errekararen urratu da. Horrela, auzoan bizi diren hamalau baserrietako jendeak biderik gabe ez gelditzeko premiazko lanak egin behar izan ditu Baztango Udalak. Modu

horretan, menditik heldu den ura bideratzeko hodia paratu dute, bidearen azpiko zuloa bete eta harri-lubeta egin dute bidea ez erortzeko eta zola eman eta baranda paratu dute. Denera 14.450 euroko inbertsioa egin dute. Mendikoa ingeniariak zuzendu eta Alzugaraik egin ditu lanak.

Erakutsi eta probetu aukerak!

DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

FOTOMENA %10 DESKONTUA kopia digitaletan Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	EZ %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91	IPINGI 10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Santiago, 122 ELIZONDO T. 948 58 09 39
Gureaut TAILERRAK %10 DESKONTUA baterietan Zaldubia indus. 8 partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25	SANSINENA %5 DESKONTUA olio aldaketetan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	ALMACO BAZTAN %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com
begoviela %25 DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan %10 DESKONTUA 10 saioko bonoetan Santiago, 14, 38 ELIZONDO T. 636 58 30 34	BIOK BAT TAILERRAK %15 DESKONTUA frenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98	Giltxaurdi %5 DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoz Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01
liberapress %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02	onegin %5 DESKONTUA kontsultetan Amaia Meoki T. 699 11 71 91 oneginelizondo@gmail.com ELIZONDO	ARGIBEL PTIKA ESKIAINTZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91
-POSTA- ELBETE %10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari Karrikaundi, 2/g ELBETE T. 948 58 15 19		

Mendigoizaleak Iparlara joanen dira martxo hondarrean

Apirilean Baztango Mendi Itzuliaren zati bat egingen dute eta Aste Santuan ez dute irteerarik egingen

TTIPI-TTAPA

Martxo hondarrerako eta apiril hasierarako hitzorduak prest dituzte mendigoizaleek. Heldu den igandean, erraterako, Zigatik abiatuta Urletsera joanen dira eta Elizaldeko bordatik, Zigaurre, Arraioz eta Auzkuen barrena, abiapuntuan akituko dute buelta. 07:30ean Elizondoko plazan dute hitzordua.

Ordu eta toki berean bilduko dira hondarreko igandean, martxoaren 29an ere. Kasu honetan Iparlara joanen dira honako ibilbidea osatuz: Aizpitz, Izpide, Oxinto, Otsanaiz, Kaskegi, Iparla. Arieta, Elorri xuri eta Meakan barrena Aizpitzera egingen dute buelta.

Apirilaren 5ean Baztango Mendi Itzuli luzearen zati bat egingen dute. Aleman, Bailei, Azaldeg, Argintzu, Ollalegi,



Hitzordu ederrak prestatu dituzte.

Trepa, Meaka eta Alemanen barna ibiliko dira. 07:30ean abiatuko dira Elizondoko plazatik.

Aste Santuan atsedena

Apirileko bigarren asteburuan, Aste Santua izaki, atsedena hartuko dute. Hala, apirilaren 19an indarberrituta bueltatuko dira.



JAIME VIGURIA

'Izarrak' ikuskizun gustagarria

Ikusleen aurreiritzi guztiak gainditu zituen Iruritako dantzariak eta Elizondoko abesbatzak elkarlanean sortutako *Izarrak* ikuskizunak. Bai otsailaren 29an baita martxoaren 14an eskainitako emanaldietan ere jendetza bildu zen eta txalo artean eskertu zuten egindako lan ederra.



FERNANDO ANBUSTEGI

Ikastolakoek Zuhaitzaren Eguna ospatu dute

Urteroko ohiturari jarraiki, Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten martxoaren 1ean Baztan Ikastolako ikasle, guraso eta irakasleek. Bailegin egin zuten arbola landaketa. Guztira 20 gaztainondo landatu zituzten eta ehun lagun baino gehiago elkartu ziren. Guraso elkartearen esku geldituko da herri lurra eta zuhaitzak zainketa, baita gaztainondoen jabetza ere.

Elikadura politika mintegian Baztango ekimenak hizpide

Martxoaren 6an eta 7an Navàsen (Katalunia) izan zen estatu mailako mintegian Baztango ekimenak izan zituzten hizpide

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 6 eta 7an agroekologiaren aldeko hirien sareak landa eremuak eta nekazaritza eta elikadura politikak mintegia antolatu zuen Navàsen, Katalunian, estatu osoko eragileekin. Mintegian Joseba Otondo Baztango alkateak parte hartu zuen, agroekologia ikuspegia duten elikadura politiketan jardun onak mahai-inguruan hain zuzen. Mahai-inguru horretan Baztango ekimenen berri eman zuen, Arras Baztan fundazioak bultzatutako konpromiso ttikien

kanpainan elikadurak duen tokia bidenabar aipatuz. Mahai-inguruan Itziar Bigurik Orduñako alkateak eta Xosé Romero Allarizeko (Galizia) ingurumen teknikariak ere parte hartu zuten, udal horietako esperientzien berri emanez. Bartzelonako diputazio-ko Sònia Callau, berriz, elikadura sistema lurraldeko bultzatzen ari diren Smart Rural proiektuaz solastatu zen.

Arratsaldean agroekologiaren aldeko hirien sareko udal ttikiek bilkura egin zuten, lantalde horren erronkak eta



Joseba Otondok mahai-inguruan parte hartu zuen. UTZITAKOA

ekintzak zehazteko. Otondok kontatu duenez, «aski emankorra» izan zen saioa, eta aurtengo urteari buruz zenbait ildo finkatu ahal izan zituzten: landa eremuaren eta elikadura ekoizpenaren arteko harremana bultzatzea eta jendartean ikusaraztea; nekazaritzako lurren zaintza eta defentsa, baserritarrak eta baserri kultura baloratzea, nekazaritza ekologikoa bultzatzeko legeak eta arauak sustatzea (salmen-

ta zuzena, ustategietako baldintza higieniko-sanitarioak...) eta Nekazaritza Politika Beteratuari buruz eztabaida bultzatzea, batez ere nekazaritza ttikia eta lurrari lotutakoa indartzeko.

Jardunaldietan Arteseko Artium kooperatiba ezagutze-ko aukera izan zuten, 100 urte baino gehiago dituen eta bertako ardogintza eta nekazari ttikiak atxikitze-ko garrantzi berezia duena.

Puro Relajo LUR ARETOA

Lur ELIZONDO

**APIRILAK 4,
LARUNBATA**

**SARRERAK
SALGAI**

**MENDI OSTATUA (ELIZONDO)
INTZA TABERNA (ELIZONDO)**

639 46 18 29



45€

14:30 · BAZKARIA

16:30 · BAZKALONDOAN DANTZALDIA

18:30 · PURO RELAJOREN KONTZERTUA



12€

18:30 · PURO RELAJOREN KONTZERTUA



Merkatariek euren salgaiak plazaratu zituzten. NATALIA REKARTE

Aukeren Azoka jendetsua Baztan pilotalekuan

TTIPI-TTAPA

Agara kirolak, Amaya zentroa, Argibel optika, Arturo, Cosas de Casa, Fantxike, Izeta, Kukuka haur arropa denda, Leiza elektogailuak, Martzutzak, Nafarpress liburu-denda, Oinatz, Olatz zapata-denda, Ortzadar, Piko-piko emakumezko moda, Virgilio oinetakoak,

Xulufraia, Zangue oinetakoak eta Zela kirolak dendetako salgaiak plazaratu zituzten joan den martxoaren 7an eta 8an Elizondon. Baztan pilotalekua aukeren bilgune bihurtu zuten merkatariek. Herriko eta eskualdeko jende dezente joan zen merkealdia baliatuz erosketak egitera.

Maiatzaren 16an izanen da Gazte Eguna Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango Gazte Asanblada Gazte Eguna antolatzen hasia da. Joan den otsailaren 29an «ideiak biltzeko» bilera egin zuten eta adierazi dutenez, Gazte Eguna maiatzaren 16an, hirugarren larunbatean, ospatuko dute Elizondon.

Hori aitzinera eraman ahal izateko bilera gehiago egitea aurreikusi dute. Heldu den larunbatean, martxoaren 21ean, berriz ere bilduko dira. Baztango gaztetxean zehaztu dute hitzordua, 11:00etan. Nahi duen oro parte hartzera gonbidatu dute.

Arizkun Rock ekainaren 19an izanen da aurten

Ongi errotutako hitzordua da Arizkun Rock eskualdeko eta inguruko musikazaleentzat. Hutsik egin gabe dator aurten ere eta, iragarri dutenez, ekainaren 19an izanen da hitzordua. Laster informazio gehiago emanen dutela jakinarazi dute.

Kupelen irekitzea larunbatean Arizkunen


Jo ala Jo elkarteak antolatuta, *Kupelen irekitzea, aitzineko erregimenaren azken hurrupak* izanen dute heldu den larunbatean, martxoaren 21ean, Arizkunen. Goizean hasi eta eguerdira bitarte mugimendua izanen dute (xehetasunak 753. zenbakian).



UTZITAKOAK

Emakumeen Eguna Baztanen

Martxoaren 8aren bueltan, hainbat ekitaldi izan dituzte Baztanen: Anizen emaztekien afaria, Lekaroztik Elizondora saretze feminista eta Iruritan antzerki emanaldia izan zituzten. Igande arratsaldean Baztandarrek eskualdeko manifestazioarekin bat egin zuten, Donezteben.



Maxux Goñi, Xabi Torres eta Mikel Santesteban aurkezpenean. UTZITAKOA

Arras Baztan Fundazioak web orria sortu du

Tokiko ekonomia indartzeko helburuz sortu dute web orrialdea

TTIPI-TTAPA

Arras Baztan Fundazioaren web orrialdea proiektatu eta aurkeztu zuten martxoaren 10ean, astearte eguerdian, Baztanen. Horretarako, Xabi Torres udal zinegotziarekin batera, Baztanet Informatika & Web enpresako Mikel Santestebanek eta Arras Baztan Fundazioko Apopilo Elkarteko Maxux Goñik parte hartu zuten www.arrasbaztan.eus webgunearen aurkezpenean.

Xabi Torresek aipatu zuenez «Arras Baztan Fundazioa tokiko ekonomia indartzeko helburuarekin sortu dute. Arras Baztan Fundazioan sinesten dugu helburu hau lortzeko osagaiak Baztanen bertan kokatzen direla. Bertako produktu eta zerbitzuak lurraldearen hobekuntzarekin lotuz, eragileen arteko harremanak indartuz eta baztandarren elkarlanerako kultura nabarmenduz, Landa Eremu erreferentziazkoazizelkatuko dugu: erronkei aurre egiten diena, ekintzailea; onuradun nagusia herritarra bera izan dena, eta iraunen duen paisaia sozial eta fisikoa emanen diguna».

Apopilo Elkarteko Maxux Goñik aipatu zuenez, zortzi dira Fundazioko patronatuko kide direnak: Baztango Artisauek; Bertan Merkarien Elkartea; Baztango Zaporeak nekazal produktu egileen elkartea; Prest, zerbitzu turistikoa biltzen dituen; Apopilo alojamendu turistikoen elkartea; Lanbide Eskola, Garalur garapen agentzia eta Baztango Udala bera. Aipaturiko norabidean pausoak ematen hasiak dira: «azkena, jakin duzuen bezala, 'konpromiso ttikien kanpaina'. Indar protagonista aldiz, baztandar bakoitzaren baitan dago, eta ezinbertzekoa zitzaien Fundazioaren eta Baztan Markaren filosofia eta ekimenen leio bat denen begi eta eskuetan jartzea», aipatu du Goñik.

Baztanet Informatikako Mikel Santestebanek webgunearen itxura, mezua eta edukia berri eman zuten ordenagailu proiektu baten bidez.

Akitzeko, Xabi Torresek gogorazi zuen ekintza konkretuek eta erabaki ttikienek ere, egiturazko aldaketak eragiten ahal dituztela.

Auzitegi Gorenak errugabetzat jo du Garbiñe Elizegi

Aroztegiko proiektua «pelotazo espekulatzalea» dela erratea ez du delitutzat jo Auzitegi Gorenak, eta hala proiektuaren bultzailzaileen «ohorearen kontra» ez duela egin ebatzi du. Enpresaren jabeen «ohorea iraintzea» egotzita, 1.000 euroko isuna jarri zioten

hasieran Elizegiri. Enpresak 36.000 euroko kalte-ordainak eskatu zizkion Baztango alkate ohiari. Elizegik, bere aldetik, «sistema judiziala horrela erabili izana lotsagarria» dela adierazi du eta «proiektua gelditu arte borrokan» segituko dutela berretsi du.

Emakumeen bizikletaldia martxoaren 21ean Izpegin barrena

TTIPI-TTAPA

Baztango hamabortz herrietako emakumezko bizikletazaleak Izpegin barrena ibiltzekoak dira heldu den larunbatean. 09:30ean abiatuko dira eta ondotik, indarrak berrartzeko, Bereko Bentan bazkalduko dute.



Ideien lehiaketa antolatu du Bertan Baztan elkarteak

Baztanek eta Bertan elkarteak hobetu beharreko alderdiak biltzeko, ideien lehiaketa antolatu du Bertan Baztan elkarteak.


Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina ideia aurkez ditzake, info@bertanbaztan.eus helbidera idatziz edo Mendi ostatuko terrazan paratu duten postontzian sartuz, martxoaren 31 baino lehen.

Lehiaketan parte hartzeko izen-abizenak, helbidea, herria, posta elektronikoa eta telefonoa adierazi behar dira.

Epaimahaia Bertan elkarte-kideek osatuko dute eta ideia hobereena sarituko dute 200 euroko balea emanez. Emandako ideiak gauzagarriak ez badira, epaimahaiak saria ez ematea erabaki dezake eta ideiak, irudiak eta datuak sare sozialetan agertuko dira.

'Hartz eta otsoekin lotan' martxoaren 22an Arizkun

Arizkun Rockek antolatuta, heldu den igandean, martxoaren 22an, Iñaki Atxaren *Hartz eta otsoekin lotan* dokumentala (Bilboko 2018ko Mendi Film Festival jaialdian saritua) eskainiko dute Arizkun. 18:00etan hasiko da proiektzioa, herriko ostatuan (Domingo gelan). Sarreran borondatea eskatuko dute eta diru hori jaialdia antolatzeko laguntza izan dena. Antolatzailuek «animatzeko eta laguntzeko» deia egin dute.





Emakume Nekazarien Elkarteko kideek ere parte hartu zuten kontzentrazioan eta manifestazioan. ARGAZKIAK: MARIFA ETA KORO

Lehen aldiz manifestazioa egin da herrian martxoaren 8an

Urte hasieran sortu zen Zugarramurdiko Feministen Taldea eta Emakumearen Eguna baino lehen, solasaldia antolatu zuen otsailean

MARIFA ETA KORO

Urte hasieran sortu da Zugarramurdiko Feministen Taldea. Lanean segidan hasi ziren, eta otsailean solasaldi bat eskeini zuten. Martxoan berriz, Emakumearen Eguna dela eta, kontzentrazioz gain, bazkari auto-gestionatu bat antolatu zuten eta historian lehen aldiz, manifestazioa ere egin zuten,



Manifestazioa Beheitiko karrikan.

Berdintasunik gabe, bakerik ez zioen pankartaren gibeletik karrikaz karrika. Aipatzekoa da Gipuzkoatik etorritako Emakume Nekazarien Elkarteko kideek ere parte hartu zutela kontzentrazioan.

Apirilerako ere, bertze zerbait aurkezteko asmoa dauka Zugarramurdiko Feministen Taldeak.

Frontoiko paretako txapa laxatu eta bota du orai haizeteak

MARIFA ETA KORO

Aldaketa klimatikoa gainean dugula bistan da. Haizeteak ezagutzen ditugu gure inguruan, baina hainbertze eta hain sasoietik kanpo sufritzea, berria da guretzat.

Aintzineko egun horietan, berriz ere arbolak bideetara eroriak ikusi ditugu, batez ere Madaria eta Etxartea auzoetan. Frontoiean, berriz, paretako txapa bat laxatu eta barneko aldera erori da, argazkian ageri den bezala.



Otsailaren 8an ireki zuten Urbia.

Maiatzaren 16ko Herri Haitadarako izena emateko aukera Ansalas ostatuan

MARIFA ETA KORO

Maiatzaren 16an Etxalarren egingen den Herri Haitadarako izena emateko orria Ansalas ostatuan paratua dago. Bertan izena, parte hartu nahi den jokoak, eta tixertaren neurria apuntatu behar dira. Aurten, orga jokoaren ordeztoka txapelketa jokatu da eta horrekin batera, betiko jokoak: boteluze, txirrindularitza, lasterka, indar jokoak, dantza, musa, bertsoak, sukaldaritza eta kultur-galderak. Herrikoe-kin batera, Urdazubi, Ainhua, Sara, Bera eta Etxalarko herri-



2018ko Herri Haitadan Saran.

tarrek parte hartzen dute urtero Herri Haitadan.

Ekipa osatzeko eta ongi pasatzeko jende aunitz behar da, beraz, anima zaitzete.

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

IDIAZABAL

caser
residencial

www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Erizaintza
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia
- Farmazia
- Psikologoa

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Podologia
- Logopedia
- Nutrizioa
- Odontologia eta dentista
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijiro zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoen kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Antzerki emanaldia martxoaren 28an herrian

Gizarte zentroan dute hitzordua, 17:00etan, eta sarrera bortz euro ordaindu beharko da

A. ETXEBERRIA ETA I. JAURENA

Harremana jubilotekaren eskutik, Oroimenak antzerki taleak *Algo habrán hecho* antzezlan eskainiko du martxoaren 28an, hondarreko larunbatean, herriko gizarte zentroan. Emanaldia 17:00etan hasiko da eta sartzea bortz euro ordaindu beharko da.



Oroimenak taldearen lana ikusgai.

Etzegabetzeaz eta mundu mailako krisiaz

Algo habrán hecho antzezlan etzegabetzeak eta «kapital finantziarioak eragindako mundu mailako krisia» ardatz di-

tuen antzezlan da. Lan honetan, ikuspegi kritikoa umorez aurkeztu dute, bukeran beharrezkoa den ebazpen bat proposatuz.



Zortzi eta 16 urte bitarteko 64 txirrindularik osatzen dute taldea. ANA C

Baztandarra Txirrindulari Taldeak denboraldiko aurkezpenean egin du

A. ETXEBERRIA ETA I. JAURENA

Martxoaren 7an Baztandarra Txirrindulari Taldeak 2020ko denboraldia aurkeztu zuen kultur etxean. Zortzi eta 16 urte bitarteko 64 txirrindularien aurkezpenean egin ondoren, aurreko Baztan Bidasoko hiru topaketa antolatuko dituztela eta ekainaren 27an Arizkun

bertze proba bat egitea aurreikusi dutela jakinarazi zuten.

Gonbidatu berezi bat izan zuten aurkezpenean: Miguel Indurain txirrindulari ohi handia. Talde guztiak aurkeztuta, ginkana bat egin zuten frontoian eta ondoren jatekoa eskaini zieten hurbildu ziren guztiei.

Herritar andana emakumeen alde bilduta

Martxoaren 8an Urdazubin ere Emakumeen Eguna harira, elkarretaratzea egin zuten Herriko Etxearen aitzinean. Jende andana bildu zen «orain inoiz baino gehiago gibelat pauso bat bera ere ez» lelopean.



MIREN OIARTZABAL

Urbia jatetxearen eta Karretero ostatuaren irekitzea

Otsailaren 8an, Urbia jatetxea ireki zuten herriko plazan. Lehenago zegoen Nikolaurena ostata hartu dute Zugarra-murdiko Herriko Etxea jatetxea zuten jabeek.

Bertzalde, Karretero ostatuak berriz ere martxoaren 14an, joan den larunbatean, atek ireki zituen. Horrela, hasiera eman zion negura arte iraunen duen denboraldiari. Batzuen zein bertzeen lanari esker, herritar eta bisitariek badute non jan eta edan Urdazubin!



Otsailaren 8an ireki zuten Urbia.

BERA (administraritza) 31780 Bera	DANTXARINEA 31712 Urdax
IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Iruñ
LUZAIDE 31660 Luzaide	

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
Abenduaren 25 eta urtarrilaren 1* izan ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com



Mikel Berasaluze baratzezaina. PIERRE BASTRES

Mikel Berasaluze baratzezainak bere enpresa sortu nahi du

Gogoeta egin eta ikastetik utzi gabe, Azpaun-Senperetik ahalik eta hurbilen etxalde bat atzeman nahi luke

PIERRE BASTRES

Mikel Berasaluzek ez du hautatu biderik errazena eta zuzenena, haatik astia hartu du bere egitasmoa ontzeko: baratzezain izaten jarraiki nahi du, baina bere alde nahi luke aritu egun batez.

Senperen bizi izanik ere, Azkaingo Zerrez auzoan sortu zen, eta beti baratze eta kabala izan ditu etxean, «nahiz eta gurasoak laborariak ez zituan, barazkirik ez genian sekula erosten» zehaztu digu. Baina ez du beti izan baratzezain bilakatzeko asmoa. Abereak nahiago zituen, eta parke baten idekitzea ametsa zuen, kabala handiekin: lehoiak, jirafak, tigreak...: «Biologia ikasketak egin ditiat bortz urtez, eta enpresa kudeatzeko ikastaldi batez ene eskolako ibilbidea burutu diat. Eskola-lanaldi bat egin behar nian, eta Assoneko (Biarnoa) zooan egitea hautatu nian. Han, ezi-nezkoa izanzen zela ene ametsa gauzatzea ohartu nintuan, sobera baimen eta paper lan izanen zirela, nik maite nitian kabalak etorrazteko. Zaila izan duk hori onartzea, eta

Eskual Herrirat itzuli nintuan. Arrunt bertze bide bat hartu nian orduan, gertakari berezi batzuen ondotik, eta presoen aldeko erakunde batean aritu nintuen bi urtez. Ondotik, berritz eskola batetarat izatu nauk, zerri hazkuntza sortzen eta kudeatzen ikasteko». Ikas-tea maite dut Mikelek, baina parada izan duenean baratzezain batekin aritzeko, gogotik onartu du: «Sarako barazki ekoizle batekin lana bazuela enetzat errana zautan, eta 13 urtez harekin egon naiz. Eskertzen dut handizki. Orain ere harentzat lan egiten dut, baina bertze birekin ere partekatzen dut ene lan-denbora: bat Biriatur, bertzea Ahetzen». Erakunde aintzekin harremanetan dago bere etxaldea sortzeko xedea ontzeko: Lur Zaindia, Ble, Laborantza Ganbara eta Herri Elkargoa. «Ez duk batere erraza etxalde baten atsemaitea hemen gandi. Azkain-Senperetik ahalik eta hurbilena den zerbait nahi nikek atzeman» azpimarratu du. Agian zortea haren alde izanen du, bertze laborari bat hemen gandi egon dadin.

Mendi lasterketako hiru sailetan kirolari aunitz izan zen martxoaren 7an eta 8an

PIERRE BASTRES

Urte guziz bezala, jendetsuak izan dira SPUC lasterka elkar-teak antolatutako Senpereko mendi lasterketako hiru sailak, martxoaren 7an eta 8an burutu direnak: Gotor lekuen Itzulia (42 km), Senpereko Trail (21 km) eta Ibar Run (10km). Gogorrena, Gotorlekuen itzulia, Jocelyne Paulyk irabazi du emazteetan eta Jokin Garai Arejolaleibak gizonetan. 387 kirolarik bukatu zuten proba.

Senpere Trail eta Ibar Run lasteketetan, berriz, Guillaume Levoy izan da irabazle. Azken proba honetan, emakumeetan Adèle Kerbaol nagusitu da.

SPUC LASTERKA

GOTORLEKUEN ITZULIA (42 KM)

1. Jocelyne Pauly	5.33.05
2. Maud Combarieu	5.55.26
3. Alice Pécatte	6.08.08
1. Jokin Garai Arejolaleiba	4.44.14
2. Benoît Cori	4.47.10
3. Yannick Gourdon	4.56.12

SENPERE TRAIL (21 KM)

1. Guillaume Levoy	1.46.48
2. Maxime Besnard	1.49.39
3. Jeremy Lenormand	1.50.10
4. Betti Ourthiaque	1.50.55
5. Julien Fernandez Arin	1.51.06

IBAR RUN (10 KM)

1. Adèle Kerbaol	53.03
2. Tiffanie Malleville	56.20
3. Julie Piriou	1.00.49
1. Guillaume Levoy	43.30
2. Vincent Loustau	43.47
3. Julien Camacho	43.56



Gotorlekuen itzuliko podioan, gizonetakoak eta emakumeetakoak. UTZITAKO ARGAZKIA



Ibar Run lasterketako podioan, gizonetakoak eta emakumeetakoak. UTZITAKO ARGAZKIA

Sagardotegia

Ibardin-BERA | T. 00 34 948 63 03 02
www.mendikoibardin.com

Karta ere badugu!



Haurrak izanen dira apiril hasieran egingen den jaialdiko protagonistak.

Haur eta gazte literaturaren azoka herrian

Aurten lehenbiziko egingen da haur eta gazte literaturari eskainitako hitzordua apirilaren 3an eta 4an

TTIPI-TTAPA

Euskarazko haur eta gazte literaturari leiho berri bat zabaltzeko asmoz, Ikusi Mikusi izeneko jaialdia egingen dute apirilaren 3an eta 4an. Galtzagorri elkarteak, Kiribil konpainiak eta Pamiela argitaletxeak sustatu dute eta Sara aukeratu hitzordu horretarako, «Idazleen Biltzarra antolatzen 36 urte daramatzalako».

Gizartean sumatua duten «hutsune bat» betetzea izanen da azokaren helburua eta hori Euskal Herri osoko ikasleak eta familiak euskarazko literaturaren inguruan bilduz lortu nahi dute.

Eskolen eta familien egunak

Bi egunetan antolatuko dute azoka. Apirilaren 3a, ortziralea, eskolen eguna izanen da, eta larunbata, familien eguna.

Eskolen egunean ikuskizunak eta tailerrak izanen dira, adinaren arabera banatuak, eta horrez gain, ikasleek aitzinetik egindako lan eta obrak bertze ikasleen aitzinean aurkezteko aukera izanen dute. Aipatu behar da eskolen egunean 200-300 bat ikasle biltzea aurrei-

kusia zutela eta dagoeneko 23 eskoletako milatik goitik eman dutela izena. Hortaz, jarduera guztietarako lekuak beteta daude dagoeneko.

Larunbatean egitekoa den familien egunerako, ordea, bada tokia, baina aitzinetik sartzeak *ikusimikusi.eus* atarian erosteko gomendatu dute. Familien egunean ere, idazleekin topaketak, ikuskizunak, eta tailerrak familia giroan egiteko aukera izanen dute hurbiltzen direnek.

Bi egunetan tailer eta ikuskizun guztiak haurrei begirakoak izanen dira, literatura oinarri dutenak. Jarduerak urrik izanen dira baina ikuskizunetarako sartzea pertsona bakoitzeko, haur zein heldu, hiru euro ordaindu beharko da. Argitaletxeak, idazleak, ilustratzaileak, liburu-saltzaileak, liburuzainak, kontalariak, artistak... haur eta gazte literaturaren bueltan dabiltzan profesional guztiak bildu nahi dituzte. Lehenbiziko edizioa izanen da aurtengoa, baina «urtez urte ezinbesteko hitzordu bilakatzea» nahi dute antolatzaileek.

Martxo hondarra bitarteko asteburuak ekitaldiz beteak

GANEX

Aspertzeko astirik izan gabe, denetarik ekitaldiak iraganen dira hilabetea finitu bitartean.

Igande honetan, martxoak 22, Eskuen Lana elkarteak antolatuta, beraien lanak ikusi eta erosteko aukera izanen da Lur Berri gelan, 10:00etatik 18:00etara.

Martxo hondarreko asteburuan, hilaren 28an eta 29an, alde batetik, Irauldearen Eguna antolatu du Zaldi Lana elkarteak. Iraulde lanaren erakustaldia egiteaz gain, animazioak ere izanen dira eta jatekoa eta edatekoa ere eskainiko dute.

Bertzetik, kirolari lotutako asteburuak izanen da, Sara Korrriak elkarteak hitzordu bikoitza antolatu baitu. Hilaren 28an, hiruakako errelebo lasterketa jokatu da, 12:00etan abia-

tuta. 19:00etan, sari banaketa egingen dute eta 20:00etan, indarrak berrartzeko afaria.

Igandean, berriz, Sara Trail 22 kilometroko luzera eta 1.600 metroko malda duen lasterketa jokatu da. 07:30etik aitzinera dortsalak banatuko dituzte eta lasterketa 09:00etan abiatuko da plazatik. Lehenbiziko kirolariak 10:45 aldera ailegatuko direla aurreikusi dute eta ibilbideko 13. kilometrotik pasatzeko gehienez bi ordu eta 45 minutu izanen dituzte. 13:00etan sari banaketa eta zozketak egingen dituzte. Jatekoa eta edatekoa ere izanen da.

Ate irekien eguna ikastolan

Bertze ikastolek bezala, Sara-koak ateak zabalduko ditu martxoaren 28an, 10:00etatik 12:00etara.



GANEX ETA LEIRE FAGOAGA

Inauteriak giro ederrean

Aurten ere umore onean joan dira inauteriak. Martxoaren 7an, larunbata, denbora txarrari aurpegi ona erakutsiz, gazteria etxez etxe ibili zen auzoetan. Igandean, haurrak eta helduak, mozorrotuta plazan bildu ziren, musikariek alaituta. Ondotik, jende andana bildu zen zantantzara erretzeko ekitaldian.



Leitzan zinemako eraikina zaharberritzeko jaso dute inbertsioaren zati bat. UTZITAKO ARGAZKIA

Milioi bat euro inbertitu ditu Gobernuak obretan

Leitzaldeko eta Baztan-Bidasoaldeko herrietan egindako lanetan, Inbertsio Finantzario Jasangarrien Planaren baitan

TTIPI-TTAPA

2019an gauzatutako Inbertsio Finantzario Jasangarrien Planaren barrenean, Nafarroako Gobernuak 15 obra sustatu ditu Larraun-Leitzalde eskualdean, 1,8 milioi euroko kostuarekin, eta horietatik 700.000 euro (%40) Gobernuak jarri ditu. Bertzalde, Baztan-Bidasoa eskualdean 23 jarduera egin dira, 1,3 milioi eurokoak. Horietatik 740.000 (% 57) Gobernuak bideratu ditu. Guztira, gure eskualdean, Leitzaldeko eta Baztan-Bidasoaldeko herrietan zehazki 1.029.500 euroko inbertsioa egin du Gobernuak. Sakanan ere egin dira lanak.

Finantza aldetik jasangarriak diren inbertsioen planak (IFS) toki entitateetan oinarrituko zerbitzuak hobetzeko obrak sustatzen ditu. Proiektu horien artean, honako hauek egin daitezke: tokiko hornidura, saneamendu eta euri uren sareetan esku hartzea; zolaketa sareekin edo sarrerik gabe; argiteria publikoa, udal zuzkidurak eraikuntza araudira

egokitzea, eta obrak egitea beti jendea bizi den tokietara eta hiriguneetara doazen bideetan. Eskualde horietan egindako 58 obren artean, 25 sare eta hodiak ordezkatzeko jarduerak izan dira. Gainera, argiteria berritzeko 15 obra egin dira, 8 zoladura lan egin dira, udal eraikinak egokitzeko 5 proiektu egin dira eta 5 bide egin dira.

Leitzan, Areson eta Goizuetan 291.000 euro

Herriz herri, Larraun-Leitzalde eskualdean obrak egin dira **Areson** (Polaineneko Bordako bidea egokitzea; 26.000 euro); Arribe-Atallun (sareak berritzeta; 94.000 euro); Baraibarren (sareak berritzeta; 16.500 euro); Betelun (sareak berritzeta, eta Errexil Bordako

LEITZAK JASO DU LAGUNTZARIK HANDIENA, 227.000 EURO

bidea zolaberritzea; 220.000 euro); **Goizuetan** (argiteria; 38.000 euro); Imotzen (Erasoko sareak berritzeta; 2.000 euro), **Leitzan** (sareak berritzeta, zolaberritzea, argiteria eta zinemako eraikina zaharberritzea; 227.000 euro) eta Lekunberrin (sareak berritzeta eta udaletxea egokitzea; 71.000 euro).

Baztan-Bidasoaldeko herrietan 738.500 euro

Halaber, Baztan-Bidasoaldean ere plan honen barrenean obrak egin dira. **Arantzan** (sareak berritzeta; 27.500 euro); **Beintza-Labaien** (argiteria publikoa; 32.000 euro); **Beran** (sareak berritzeta eta zoladura; 172.500 euro); **Bertizaranan** (sareak berritzeta Legasan, 20.000 euroko inbertsioarekin); **Donamarian** (sareak berritzeta eta pilotalekua berritzeta; 122.500 euro); **Donezteben** (sareak berritzeta; 106.500 euro); **Etxalarren** (udaletxea egokitzea 28.500 euro); **Igantzin** (sareak eta Elutseta bidea berritzeta; 32.500 euro); **Ituren** (argiteria publikoa Latsagan, 8.000 euroko inbertsioarekin); **Lesakan** (sareak berritzeta; 41.500 euro); **Oieregin** (Enaburua bidea; 6.000 euro); **Oizen** (Uhana bidea handitzea; 8.000 euro); **Sunbillan** (argiteria eta zoladura berritzeta; 81.000 euro); **Urdazubin** (argiteria; 25.500 euro) eta **Urrozen** (sareak berritzeta eta pilotalekua moldatzea; 26.500 euro).

60.000 euro banatuko ditu ikastolen Tanta egitasmoak

TTIPI-TTAPA

Baztan, Labiaga eta Tantirumairu ikastolak Tanta elkartasun egitasmoa txartelak saltzen hasiak dira. Ekainaren 25ean egingen den zozketan 60.000 euroko saria banatuko da.

Euskal Herriko hezkuntza eredu propioa eta euskaldunaren aldeko 111 ikastolek martxan paratutako egitasmoa da Tanta, Baztan eta Bortzirietako ikastolek ere babesten dutena. Hiru ikastetxeetako ordezkariak azaldu dutenez, «egitasmo honek elkartasuna du oinarrian eta 60.000 euroko sari bat izanen du. Tanta zozketan 5 euroko txartelak salgai egonen dira». Zozketa ekainaren 25ean egingen dela jakinarazi dute. Azaldu dutenez, txartelak eskuratuz «Euskal Herrian zein Bortzirietan eta Baztanen euskara eta hezkuntza eredu propioak sustatzen segitzeko haizea emanen zaie ikastolei. Gure proiektua aitzinera ateratzeko bulkada ekonomikoa jasoko dugu, euskaratik eta euskaraz».

Hiru ikastoleetako ordezkariak gogoratu dutenez, «badira 40 urtetik goiti Baztan eta Bortzirietako ikastolak euskaraz hazi, hezi eta bizitzeko lanean hasi ginela, tantaz tanta euskararen xirimiriaz zonaldeko lurra euskaraz bustitzen». Eta adierazi duten moduan «lan hau beti egon da elkartasunean, auzolanean eta herrigintzan oinarriturik eta Tanta egitasmoaz, lan horretan sakontzen segitu nahi dugu».

Azkenik, azpimarratu dute Bortzirietako, Baztan eta Nafarroan «euskararen presentzia eta erabilerak indartzen segitzeko, ikastolen lanak duen garrantzia». Txartelak erosiz, elkartasun keinu bat egiteko deia egingen dute.



Larrañaga azpeitiarra eta Jon Rekondo leitzarra, txapeldun. ARGAZKIAK: IBON ERRAZU URIA

Jon Rekondo eta Larrañaga urrezko egin dira Azpeitian

Emakumezkoen banakako lehian Irati Astondoa bizkaitarra nagusitu zaie Nerea Sorondo beratarri eta Maika Ariztegi iturendarrari

TTPI-TTAPA

Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako finalak jokatu ziren martxoaren 7an Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, bai kategorian nagusian baita 23 eta 19 urtez beheitiko kategorietan ere. Emakumezkoen banakako aizkolaria txapelketako eta urrezko harri-jasotzaile txapelketako txapelak ere bertan banatu ziren.

Kategoria nagusian Mikel Larrañaga azpeitiarra eta Leitzako Jon Rekondo nagusitu ziren (25.30). Ugaitz Mugertza eta Julen Alberdi *Txikia IV.a* iazko txapeldunak bigarren sailkatu ziren, minutu batera (26.30). Hirugarren Iker Vicente eta Jesus Mari Mujika izan ziren (29.15).

Hauek ongi hasi ziren, baina bi probetan agertutako adarrekin ez zuten zortea aldeko izan eta hirugarren tokian bukatu zuten.

Emakumeen txapelketa ere jokatu zen eta lehia estua izan zuten Irati Astondoa zeanuritarra eta Nerea Sorondo beratarra. Azkenean, sei se-

gundoren aldearekin, bizkaitarrak jantzi zuen txapela (6.32). Nerea Sorondo bigarren izan zen (6.38). Hirugarren postua Maika Ariztegi iturendarrentzat izan zen (8.00).

23 urtez azpikoetan ere lehen posturako lehia gogorra izan zen. Ioritz Gisasola *Zelai IV.ak* eta Suharri Rodriguezek sei kana-erdiko ebakitzeko 9.03 behar izan zuten eta bigarren sailkatu zen bikoteak, Julen Larrea III.a eta Jokin Urretabizkaia *Basozabalek*, 9.11 egin zuten. Podiumeko hirugarren postua Hodei Ezpeleta eta Unai Zabala-entzat izan zen (11.30).

19 urtez beheitikoan bi bikote aritu ziren; Axel Larrañaga eta Markel Zapiainek 8.49an bete zuten lana eta Berako Oier Larretxea eta Endika Goia, 9.32an.

Lehia estua harri-jasotzen

Urrezko harri-jasotzaile txapelketan ere lehia estua izan zuten hiru lehiakideek.

Bi minutuko txandetan, 175 kiloko harria 8 aldiz leporatu zuen Aimar Galarragak; Urdax



Binakako Urrezko Aizkolaria txapelketako aurtengo podioa.



Irati Astondoa nagusitu zaie Nerea Sorondo eta Maika Ariztegi.



19 urtez beheitikoan, Oier Larretxea eta Endika Goia beratarrek bigarren izan dira.

Magunazelaiak eta Xabier Peñak bederatzina jasoaldi egin zituzten.

Horren ondoren, 150 kiloko, bi minutuan hau ere, 7 aldiz jaso zuen Aimarrek. Eta Urdaxek eta Peñak berriz berdindu egin zuten hamarna jasoaldi eginez. Ondoren, hirugarren eta azken harriaren txanda heldu zen, 125 kiloko biribila.

Aimarrek 10 leporatze egin zituen. Ondoren, Urdaxen txanda. 15 jasoaldi egin zituen. Peñak doi-doi bat gehiago ematea lortu zuen, 16, txapela janzteko.

URREZKO AIZKORA

URREZKO AIZKOLARIAK

1. Larrañaga-Rekondo	25.30
2. Mugertza-Txikia IV.a	26.30
3. Vicente-Mujika	29.15

BANAKA

1. Irati Astondoa	6.32
2. Nerea Sorondo	6.38
3. Maika Ariztegi	8.00

23 URTEZ BEHEITI

1. Zelai IV.a-Rodriguez	9.03
2. Larrea III.a-Basozabal	9.11
3. Ezpeleta-Zabala	11.30

19 URTEZ BEHEITI

1. Larrañaga-Zapiain	8.49
2. Oier Larretxea-Endika Goia	9.32



Gizonezkoen eta emakumezkoen podioak, bi korrikalari proban eta Hodei Lujanbio goizuetarra maldan goiti. UTZITAKOAK

163 korrikalarik bukatu dute Lesakako II. Mendi Lasterketa

Goizuetako Hodei Lujanbio eta Maite Karrika donostiarra nagusitu ziren 14 kilometroko lasterketan eta Mattin Lekuona lesakarra eta Ainhoa Etxegarai beratarra Gazte Trailen (7 km.).

AITOR AROTZENA LESAKA

Martxoaren 8an egin zuten Beti Gazte elkarteak bigarren aldiz antolatutako Lesakako Mendi Lasterketa. 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa osatu zuten nagusiek, tartean Frain (455 metro) eta Unanue igoz. Gizonezkoetan, Intxixu Trail taldeko Hodei Lujanbio goizuetarra nagusitu zen (1.14.37), Berrobiko Ibai Madina (1.16.08) eta Arraiozko Iñaki Mihuraren (1.16.47) aitzinetik. Emakumezkoetan, estuago joan ziren kontuak eta, hoguei korrikalarien artean, Maite Karrika donostiarra izan zen garaile (1.35.42, marka berria eginez), zortzi segundora sartu zen Altsasuko Haizea Ramirez de Alda (1.35.50) eta 31 segundora iaz garaile izan zen Idoia Maritxalar lesakarra (1.36.13). Gizonezkoetan, bosgarren postuan sartu zen Beñat Saralegi izan zen lehenbiziko lesakarra (1.19.56).

163 korrikalarik lortu zuten proba nagusia burutzea. Irteera eta helmuga komentu



Mattin Lekuona eta Ainhoa Etxegarai nagusitu ziren Gazte Trailen. UTZITAKOAK

inguruan izan zuten aurtengoan, martxoaren 8a zela eta plaza inguruan zenbait ekitaldi antolatuak zirelako.

Gazte Trail

13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako Gazte Trail lasterketa, 7 kilometro luze eta 300 metroko desnibela duena ere egin zuten hamasei korrikalarik. Iaz bezala, Mattin Lekuona lesakarra nagusitu

zen (32.51), Beintza Labaien-go Beñat Albisu (33.08) eta Erratzuko Unai Bengotxearen (33.33) aitzinetik. Nesketan, iaz bigarren izan zen Berako Ainhoa Etxegarai nagusitu zen (36.48), Arantzakoa Lorea Zubietaren aitzinetik (45.34).

Taldeka, 30 korrikalari baino gehiago aurkeztu zituen Beti Gazte nagusitu zen eta txanpaina eta bildotsa eraman zituen saritzat.

LESAKAKO II. ML

ESKUALDEKOAK (14 KM)

1. Hodei Lujanbio-Goizuetarra	1.14.37
3. Iñaki Mihura-Arraioz	1.16.47
4. Jokin Arretxea-Narbarte	1.19.22
5. Beñat Saralegi-Lesakara	1.19.56
8. Peio Etxabide-Lesakara	1.21.36
9. Iñigo Lasaga-Bera	1.21.55
12. Xabier Telletxea-Donztebe	1.22.53
13. Dani Iparragirre-Arantza	1.24.17
15. Iñaki Telletxea-Elizondo	1.24.37
18. Mattin Etxabide-Lesakara	1.25.30
20. Xabi Garmendia-Bera	1.26.17
22. Mikel Urtegi-Igantzi	1.26.56
29. Iker Telletxea-Lesakara	1.28.44
31. Joseba Lasarte-Bera	1.28.50
32. Borja Garcia-Lesakara	1.28.53
34. Aimar Otxoteko-Lesakara	1.28.57
36. Ina Lasaga-Bera	1.29.33
37. Asier Irazoki-Bera	1.29.43
38. Gorka Urtasun-Irurita	1.30.17
39. Imanol Lukanbio-Arantza	1.30.19
40. Iker Iturria-Lesakara	1.30.40
42. Ander Olaizola-Lesakara	1.31.16
46. Mattin Garbisu-Lesakara	1.32.22
47. Oskar Ariztimuño-Leitza	1.32.26
49. Ibai Iturria-Bera	1.32.39
50. Mikel Arriola-Lesakara	1.32.46
51. Ganix Arruti-Lesakara	1.33.13
52. Jon Zabala-Arantza	1.33.36
54. Juan Luis Irazoki-Bera	1.33.56
55. Igor Agesta-Donztebe	1.33.57
56. Iñigo Arrieta-Sunbilla	1.34.07
59. Imanol Arregi-Etxalar	1.35.28
63. Mikel Irigoien-Lesakara	1.35.52
65. J.Ramon Pikabea-Bera	1.35.59
66. Jon Otxoteko-Lesakara	1.36.01
67. Idoia Maritxalar-Lesakara (3)	1.36.13
68. Mikel Elzaurdia-Bera	1.36.17
69. Patxi Aroztegi-Amairu	1.36.25
70. Ane Elzaurdia-Bera (4)	1.36.46
72. Eneko Zabaleta-Leitza	1.37.20
74. Peio Telletxea-Lesakara	1.37.41
75. Jon Ubiria-Lesakara	1.37.57
77. Joxan Arruti-Lesakara	1.38.31
79. Joseba Oskariz-Lekaroz	1.40.00
82. Iñaki Berruet-Lesakara	1.40.47
83. Jabier Maia-Lesakara	1.41.31
91. Beñat Conde-Lesakara	1.42.43
101. Andoni Arriola-Lesakara	1.46.19
105. Oier Iantzi-Lesakara	1.48.06
106. Urki Txoperena-Lesakara	1.48.42
107. Mikel Leiza-Lesakara	1.49.04
116. Unai Obregon-Elizondo	1.51.48
121. Igor Gurrutxaga-Lesakara	1.52.36
123. Jon Erro-Lesakara	1.52.50
125. Joseba Bertiz-Igantzi	1.53.58
127. Pello Lasa-Lesakara	1.54.51
128. Beñat Maia-Lesakara	1.54.56
130. Julen Larregi-Elizondo	1.55.53
131. Maite Aiestaran-Lesakara (8)	1.56.06
132. Sergio Morate-Bera	1.56.07
135. Asier Arburua-Etxalar	1.57.51
136. Jabier Larroy-Etxalar	1.58.04
138. Aitor Cerezo-Bera	1.58.40
143. Loli Pardal-Lesakara (12)	2.00.04
149. Begoña Aroztegi-Amairu (15)	2.05.44
150. Gotzon Arenas-Arantza	2.05.47
153. Maria Iantzi-Igantzi (16)	2.10.24
154. Adur Iantzi-Igantzi	2.10.26
158. Ainhoa Ubiria-Lesakara (18)	2.12.58

GAZTE TRAIL (7 KM.)

1. Mattin Lekuona-Lesakara	32.51
2. Beñat Albisu-Beintza-Labaien	33.08
3. Unai Bengotxea-Erratzu	33.33
4. Manex Ramos-Lesakara	33.44
6. Hegoi Baraibar-Areso	35.22
7. Jon Apeztegia-Lesakara	36.42
8. Ainhoa Etxegarai-Bera (1)	36.48
9. Josu Etxepeteluku-Lesakara	37.59
10. Peio Iturria-Lesakara	38.20
11. Oihan Urroz-Lesakara	38.23
12. Imanol Ugaldebere-Lesakara	39.03
14. Amairu Gofri-Bera	40.06
15. Aritz Gartzia-Bera	40.19
16. Lorea Zubietta-Arantza (2)	45.34



Txapelketan ariko diren 16 erremontistetatik hamaika aurkezpenean. M.ANDRES

Zortzi bikote hasi dira Sagardoaren txapelketan

Eskualdeko lau erremontista ari dira: Ezkurra II.a eta Zubiri bikote eginez eta Endika Urrutia eta Aritz Juanenea

TTIPI-TTAPA

Zortzi bikote hasiak dira erremon-teko Sagardoaren Txapelketaren hamargarren edizioan, launa bikoteko bi talde-tan banatuak. Eskualdeko erremontistei dagokienez, Josetxo Ezkurra II.a donezte-

barrak eta Aritz Zubiri goizuetarrak elkarrekin jokatu-ko dute, Larre-Gain sagardotegia ordezkatzuz. Endika Urrutia saldiastarra Goikoetxearekin ariko da (Gurutza) eta Aritz Juanenea saldiastarra Agirrezabalarekin (Altzueta).

Sagardoaren Txapelketako hamargarren edizioaren aurkezpena Petritegi sagardotegian egin zuten martxoaren 3an, iazko irabazleak Seguro-la eta Endika izan baitziren, Astigarragako sagardotegiaren ordezkariak. Aurten, bikote txapelketa banandu egin da, eta ez dute elkarrekin jokatu-ko.

Zortzi bikote bi taldetan

A taldean, Urriza-Arruarte (Bereziartua), Ezkurra II.a-Zubiri (Larre-Gain), Goikoetxea-Endika (Gurutza) eta Segurrola-Ion (Gaztañaga) ari dira. B taldean, berriz, Matxin III.a-Azpiroz (Petritegi), Juanenea-Agirrezabala (Altzueta), Ansa II.a-Larrañaga (Setien) eta Aldabe-Barrenetxea IV.a (Oialume Zar).

Talde bakoitzean denak denen kontra ariko dira, ortzegun eta larunbatetan, eta bi lehenbizikoak sailkatuko dira apirilaren 23tik maiatzaren 2ra jokatu-ko den finalerdietako ligaxkarako. Hemen ere lau bikoteak denak denen kontra ariko dira eta bi lehenbizikoak izanen dira finalistak. Finala maiatzaren 9an jokatu-ko dute, bertze partida guztiak bezala Galarretan.

Txapeldunorde izan da Ibargarai buruz buruko pala txapelketan

TTIPI-TTAPA ERRATZU

Xabi Ibargarai erratzuarrak ez zuen joan den urteko balentria errepikatzerik izan. Iaz, buzu buruzko pala txapelketa irabazi zuen lehen aldiz, Gaubekaren kontra. Oraingoan, aldiz, bizkaitarra ongi nagusitu zitzaion otsailaren 28an Bilbon, hiru jokoak irabazita (8-10, 4-10, 7-10).

Gisa honetara, 42 urterekin bere seigarren txapela jantzi du Gaubekak, Pablo Fusto berdinduz eta Oscar Insaustik baino bat guttiagorekin.

Finalean, beharbada lehenbiziko jokoan egon zen giltza. Ibargarai 8-7 aitzinetik izan zen, baina azken hiru tantoak bizkaitarrak egin zituen (8-10). Bigarrenean ere 4-3 aitzinetik izan zen Erratzukoa, baina 0-7ko partzialarekin eraman zuen joko Gaubekak (4-10). Hirugarren jokoan ere gogotik lan egin zuen Ibargarai eta 7-8ra ere hurbildu zen, baina azken bi tantoak egin zituen txapeldun berriak (7-10).



MAIALEN ANDRES

Perurena omendua Erremontearen Galan

Otsailaren 29an ospatu zen Erremontearen Gala Galarretan. Barrenetxea IV.ak eskuratu zuen lehen aldiz Urrezko Erremontea. A taldeko erremontisten artean bera izendatu zuten onena eta B taldean Aldabe. Iñaki Perurena harri-jasotzaile leitzarra ere omendu zuten bere ibilbidea azpimarratuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pilotariak bikain Kirol Jokoetan

Nafarroako Kirol Jokoetan, nesken eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 1ean Leitzan. Infantiletan, Aurrerako Goiuri Zabaleta txapeldun izan zen, Uharteko Aitzane Ibarrolarekin. Umore Onako Alize Sagardui eta Araitx Legarreta txapeldunorde izan ziren alebinetan.

MARTXOAK 19 - APIRILAK 2

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKUSKIZUNAK

BERA

Elkarrizan dokumentala

Kultur etxean, martxoaren 20an, 18:00etan.

'Erlauntza' antzerkia

Kultur etxean, martxoaren 22an, 18:00etan.

'Looking for Betsy' ipuin-kontalaria

Liburutegian, martxoaren 27an, 18:00etan.

URDAZUBI

Oroimenak antzerki taldearen emanaldia

Martxoaren 28an, 17:00etan.

LESAKA

'Hiru aldiz Euskara' bideo-emanaldia

Harriandoan, martxoaren 29an, 18:30ean.

DONEZTEBE

'Perez, ametsetako sagutxo'

Zineman, martxoaren 29an, 16:30ean.

'Familia al instante'

Zineman, martxoaren 29an, 18:30ean.

GOIZUETA

'Benetan berdinak al gara?'

Eskolan, apirilaren 8an, 11:30ean.

HITZALDIAK

ETXALAR

Musikoterapia hizpide

Larraburuan, martxoaren 27an, 19:00etan.

BERA

Bestetako bilera irekia

Beralandetan, martxoaren 31n, 18:00etan.



ERREKA DANTZA TALDEA

DONEZTEBE Erreka dantza taldea

Gaiteroak. dantza herrikoiak, luntxa eta dantza ekitaldia. Apirilaren 4an.

'Bera Zigardiberetik ikusita: 300 urte'

Beralandetan, apirilaren 1ean, 19:00etan.

ELIZONDO

Gazte Eguna antolatze bilera

Gaztetxean, martxoaren 21ean, 11:00etan.

ARIZKUN

'Hartz eta otsoekin lotan'

Posadan, martxoaren 22an, 18:00etan.

TAILERRAK

LEITZA

0-8 hilabeteko haur eta gurasoentzat Familien Txokoa

Asteazkenero udaletxeko lehendabiziko solairuan 11:30etik 12:30era.

9-18 hilabeteko haur eta gurasoentzat Familien Txokoa

Martxoaren 17an eta 31n, apirilaren 21ean eta maiatzaren

5ean, kiroldegian, 11:00etatik 12:30era.

BERA

Dantza garaikide tailerra

Kultur etxean, martxoaren 28an, 11:00etatik 13:00etara.

KIROLA

ELIZONDO

Urletsera

Martxoaren 22an, plazatik abiatuta, 07:30ean.

Iparlara

Martxoaren 29an, plazatik, 07:30ean.

LEITZA

Herri Krosa

Apirilaren 4an.

KONTZERTUAK

ALMANDOZ

Elizondoko Abesbatza

Martxoaren 19an. 12:00etan.

ORONÓZ-MUGAIRI

Baztan Kantuz

Urgainetik abiatuta, martxoaren 22an, 12:00etan.

LESAKA

Musika Bandaren kontzertua

Andra Mari egoitzan, martxoaren 29an, 11:00etan.

GOIZUETA

Dama Beltzak

Ganbaran, martxoaren 28an, 18:00etan.

ELIZONDO

'Haize gorri batek'

Arizkunenean, martxoaren 22an, 19:00etan.

Musika sinestesikoa

Apirilaren 5ean.

DANTZA

ELIZONDO

Bailableak

Arizkunenean, apirilaren 5ean, 19:00etan.

IRTEERAK

ARANTZA

Sagardotegira

Martxoaren 28an.

DONEZTEBE

Sagardotegira

Apirilaren 11n.

ERAKUSKETAK

LESAKA

'Oztoporik gabe, hobe!'

Liburutegian, martxoaren 27ra arte.

ELIZONDO

'Oztoporik gabe, hobe!'

Arizkunenean, apirilaren 2tik 13ra.



ARTXIBOKOA

LEITZA XLII. Herri Krosa

Ibilbidea eta ordutegia kategoriaren arabera.
Apirilaren 4an.

Komiki erakusketa

Arizkunenean, apirilaren 1etik
28ra.

GOIZUETA

**Emakumeari buruzko
erakusketa**

Labaderoan, martxoaren 23tik
29ra.

AZOKAK**BERA**

Bertako produktuen azoka

Beralandetan, bigarren
larunbatetan, 10:30etik
13:30era.

ELIZONDO

Baztango artisauak

Plazan, martxoaren 21ean,
11:00etatik 14:00etara.

OSPAKIZUNAK**LEITZA**

Garagardo festa

Martxoaren 28an.

ETXALAR

**Bidasoko herrien kantu
bazkaria**

Etxalarko Bentan, martxoaren
28an, 14:00etan.

ARIZKUN

**'Kupelen irekitzea, Aitzinako
Erregimenaren azken
hurupak'**

Goizez eta eguerdiz, martxoaren
21ean.

LARRAINTZAR

**Baztan Rugby Taldearen
gaupasa**

Martxoaren 28an.

LESAKA

Zubiriari omenaldia

Apirilaren 4an.

ANIZ

Baserriko uzta

Apirilaren 4an.

DONEZTEBE

**Erreka Dantza Taldearen
X. urteurrena**


Apirilaren 4an.

Nire aukera

«Musean bikotea ongi ezagutzeak irabazten laguntzen du»

ARITZ ALUNDA PAIN ARRAIOZ

Mendian korrika, laxoan jokatzeko, mahai inguruan musean... nonahi harrapatuko du Aritz Alunda Arraioz bisitatzen duenak. «Herri mugimenduari» lotua bizi da eta aukera duen guztietan bertako erronketan parte hartzen du. Ez da kasualitatea muslaria izatea Arraiozen «muserako zaletasuna» dagoela kontuan izanez gero. 15 urte zituelarik hasi zen musean jolasteko ikasten, «amarekin eman nituen lehendabiziko pausoak». Hasi eta segi egin du bidea. Orain, «astebururo edo bi asteburutatik behin pare bat partida» jokatzeko saiatzen da, «erritmoa mantentzeko». Tarteka, Herriko Ostatuan biltzen dira, «bereziki 50-60 urteko herritarrak joaten



dira, gazteok ez gara maiz elkartzen...». Badute, ordea, txapelketa batzuetan parte hartzeko ohitura eta horietako bat da Euskal Herriko Mus Txapelketaren bueltan izaten diren herriz herriko partidak: «herrian beti antolatu izan da eta Garikoitz Larretxea eta biok denetan parte hartu dugula uste dut». Hitzordua eta muserako bikotea

finkatuak ditu. Aurten, herriko kanporaketan 15 bikote bildu ziren eta, bertzeak bertze, Alundak eta Larretxeak Nafarroako Txapelketara sailkatzea lortu zuten: «bortz bat aldiz ailegatu gara Nafarroako Txapelketara. Bai 2016an baita aurten ere hirugarren postua lortu dugu...». Karten bueltan sortzen den giroa «arras polita» iruditzen zaio arraioztarrari: «jendea ezagutzeko eta harremanak sortzeko aukera polita da». Argi du «maila ona» dagoela, baina deus ez da ezinezkoa. Otsailaren 29an jokaturako Nafarroako finalean, irabaztea ez baina Euskal Herriko kanporaketara sailkatzea lortu zuten. Asteburuan jokatzeko zuten final handia Zigoitian (Araba) eta «esperantza» ez zuten galduta. Izan ere, «2016an Euskal Herriko finalean laugarren» izan ziren eta «edozer pasatzeko aukera dagoela» ikusi zuten. «Suerte» omen da giltza. Halaxe dio, baina... hori baino gehiago beharko da punta-puntan ibiltzeko eta hortan ez du ezetzirik erran: «bikotea ongi ezagutzeak laguntzen du». Musa «intuizioa eta engainua uztartzen dituen jolas bat bertzerik ez da» arraioztararentzat. Handi, txiki, pare, joko, mus eta hordagoetan ez baita galtzen bizia.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500 m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehen-biziko solairuan, erdigunean kokatua, Altxate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldea estreinatu gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎608 77 79 26.

ELIZONDO. Logela bateko apartamentua salgai, garaje plaza eta trastelekuarekin. Igogailua garajearaino. Arras egoera onean. Bizitzera sartzeko. Arras aproposa pertsona/bikote batentzat, asteburuetarako, edo errentan emateko. ☎687 384 475.

BERA. Eztegara karrikan, Ezkerrekoa etxean pisua salgai. 72m² ditu, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela bainugela eta trasteleku ederra. Sukaldea eta logela hegoaldera begira. Pasioloan paretako armairu ederra. Igogailua, gas naturala, PVC leihoak, berogailua. ☎636 58 10 66.

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko -450 euro- edo salgai -98.000 euro-. ☎698 51 15 25 (Josemari).

DONEZTEBE. Zazpigurutzen 102 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Ganbara eta igogailuarekin. Garaje komertziala ere bai. ☎669 08 01 61.

ELIZONDO. Apartamentua salgai. 2 logela, komuna, sukalde zabala, egongela zabala eta trastelekua. Igogailuarekin. ☎680 45 68 74.

ERRENTAN HARTZEKO

Erizain patek pisua, **apartamentua, etxea edo baserria** errentan hartu nahi du. 500 euro ordaintzeko prest. ☎693 69 49 76.

ERRENTAN EMATEKO

BURLATA. Ikasle pisu batean logela bat errentan emateko apirilean, maiatzean eta ekainean. ☎659 82 66 09.

BAZTAN. Txaleta errentan emateko. Garajea, txokoa, baratzea, berogailua, egongela tximiniarekin, sukaldea, 3 logela, 2 bainugela, portxe ederra eta lorategia. Agente arduratsua. ☎698 51 15 25.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

Bi lursail salgai. Saldiasen 4.500m²koa, itxia, 9.000 eurotan eta Sunbillan 25.000m²koa, 12.000 eurotan. ☎698 51 15 25 (Josemari).

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Iparralde karrikako 1. zenbakian 40 m²ko lokal komertziala errentan emateko. Komuna dutxa eta guzti. ☎608 77 79 26.

BERA. Bidasoa karrikan, garaje marra errentan emateko. ☎626 89 93 49.



744 484 361

ttipi-ttapa

LANA

ESKAINTZAK

ZUGARRAMURDI. Antton Bentan zerbitzari bat behar dute asteburutarako. ☎672 23 26 46.

BERA. Harategi batean harakina behar dute lanaldi osoan aritzeko. ☎948 63 04 39.

ETXALAR. Pertsona bat behar dute bi haur zaintzeko, goizean ordu batzuk eskolara eraman bitarte. ☎686 31 63 97.

LESKA. Kafetegi batean egun erdiz aritzeko langilea behar da. Bidali curriculum m.evaogi@gmail.com helbidera.

BERA. Hotel batean harreragilea behar dute, esperientzia duena eta hizkuntzak dakizkiena (frantsesez

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 180,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,65/6,25
- 8-10 kilokoak: 4,60/5,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 86 €

Zerri gizona 1,522 €

Zerramak 0,910€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(otsailaren 28tik martxoaren 6ra
bitarteko prezioak)

eta ingelesez naturaltasunez egiten duena). Bidali curriculum argazkia-
rekin: info@hotelchurrit.com.

DANTXARINEA. Maspormenosen jendea behar dute asteburuetan lan egiteko. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterkariendako, kanpoko jardueretarako... Bidali curriculum info@maspormenos.net helbidera. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute.

BERA. Hortz klinika batean auxiliarra behar dute. Bidali curriculum: bhortzklinika@gmail.com. ☎948 63 16 31.

ESKARIAK

Zerbitzari lanetan eta eraikuntzan esperientzia duen pertsona lan bila. ☎631 72 01 08.

Hainbat tokitan lanean ibilitako pertsona bat eraikuntzan, zerbitzari bezala.... Edozein lanetan aritzeko prest. ☎631 69 80 24.

Pertsona adinduk zaintzen esperientzia duena lan bila. Bertze lanetarako ere prest: garbitasunean, haur txikiak zaintzen... ☎644 68 96 44.

Esperientziadun emakumea lan bila. Adinduk zaintzen, ostalaritzan... lanean aritzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎641 85 26 77.

Haurrak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Pertsona adindua, umeak, garbitasunean... aritzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎641 85 26 50.

Eraikuntzan eta animaliak zaintzen esperientzia duen gizonezkoa lan bila. Edozein arlotan lanean aritzeko prest, ordutegi malgua. Ingelesez solas egiten du. ☎641 85 26 63.

Emakumezko bat goizez orduka aritzeko lan bila: garbiketan (etxeak, igerilekuak, ostatuak...) edo haurrak zaintzen aritzeko prest. ☎688 71 59 58.

Neska arduratsua lan bila. Erizaintzako oinarritzko ikasketak eginak eta adinekoak zaintzen aritua eta erreferentziak. Interna gisa nahia-go. ☎674 44 82 79.

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

KLASE PARTIKULARRAK

Gizarte zientziak ikasten ari diren batxiler 1eko bi ikaslek matematika klaseak hartuko lituzkete Beran edo Lesakan. ☎664 28 79 59.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Urte bateko txakurra salgai. Mes-tizoa, Border Collie eta artzain txakurarena. Txertoak emanak ditu eta txiparekin. ☎616 16 48 47.

SALGAI



LEITZA. Txerrikumeak salgai. Jaten hasiak; pintoak. Bizirik edo elkar-teen jateko ere prestatzen ditugu. Deitu edo idatzi Whatsappez. ☎690 98 61 18 (Eneritz).

MOTORRAK

TAILERRAK



DENETARIK

SALEROSKETAK



Altzariak salgai. Etxe sarrerako pertxeroa eta bi oheko habi-ohea salgai. ☎637 99 39 39.



UNCETA markako **lanerako mahai profesionala** salgai, altuera alda-

garria. Hagitz sendoa eta hainbat osagarrirekin: kajonera, oinendako pausalekua, dokumentuendako bandeja, argia eta abar. 1,5 x 0,75 metro, altuera 0,7tik metro batera. ☎616 29 54 20.


Belar fardo tikiak salgai. ☎618 96 27 74.

ALKAIAGA. Belar-fardoak salgai. ☎948 63 04 19.



Binilozko lurzorua salgai, zokaloa eta isolatzailea barne. Guztira 10 kaxa eta kaxa bakoitzeko zortzi lama (1,66m² kaxako). Ikatz kolorekoak. Neurriak: 17,1 cm x 121,2 cm. Lodi- diera: 5 mm-07mm. ☎688 62 65 72 / 639 47 43 53.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Otsailaren 28an, N-121-A errepide mozketaren ondotik, giltza sorta bat aurkitu dute, Agerrako industrialdean. ☎619 76 95 12.

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

SUZUKI

MITSUBISHI MONTERO 3.2, 160 CV, 2010

TOYOTA LAND CRUISER 3.0, 190 CV, 2012

4x4

www.mendaurmotor.es

KONTATU KONTUAK



Mendizaleak Ipar Martxa proban. Martxoaren 8an jokatu zen Ipar Martxaren lehenbiziko froga Lodosan, aldi berean, Nafarroako Kopa Txapelketarako puntuagarria. Eskualdeko ordezkari- tza polita izan zen, horietako aunitz Ttuku-Ttuku Ipar Martxa taldearen izenean joanak. Batzuk froga puntuagarrian parte hartu zuten eta bertzeak ibilaldia egitera hurbildu ziren. Lehiatu zirenen artean, Jon Medrano Ruiz elizondoarra sailkapen orokorrean hirugarren gelditu zen, Ramontxo Arandia Goldarazena beratarra seigarren eta Ainara Unanua gartzaindarra 43. (emakumezkoetan 15.a). Infantiletan, nesketan Ainara Zelaieta Aleman eta Olatz Goñi Medrano elizondoarrak bosgarren eta seigarren gelditu ziren. Mutiletan, beriz, Xuban Zelaieta Aleman elizondoarra lehenbizikoa izan zen eta Julen Zelaieta Aleman lehenbizikoa gazteen mailan.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berri- rika eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontagizuz eta bidalgizuz argazkia!!

Posta elektronikoa edo Whatsapp: Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira.

Sampi Aragón

HYUNDAI I30 1.0TGD 120CV. KM0

HYUNDAI KONA 1.0TGD 120CV. KLASS. KM0

HYUNDAI TUCSON 1.6 131CV KLASS. KM0

DONEZTEBE | 948 450 354
administracion@arincar.com - www.arincar.com

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

1.000€

1.200€

1.500€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

OROIGARRIA



Amatz Joxepa,
Zubizargañako ama, amatz, birramatz,
zure inguruan elkartuak hameka aldiz.
Terrazan berendu-afariak,
su ondoan kafesne-zopa eta opillak,
hainbat irri ta dantza, txanpainez alaituak.
Beti gure bihotzean, gero arte amatz.

*Biloba eta birbilobak
Sunbilla, 2020ko Otsailaren 27an.*

URTEURRENA



Enrike ERREGERENA BERA
2018-03-26
Ez zaitugu ahaztuko!
ETXEKOAK

 **BEILATOKIAK**
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

OROIGARRIA



Katti OYAREGI GUISU
Iturenen, 2020ko otsailaren 24an, 89 urte zituela



Nahiz eta momentua tristea izan Nahi nuke kantari hasi Gure bizian familixto bat Ederki bai duzu hazi Bastorrata eta hariekin Hainbat arte ta fantasi Zure altzoan edo ondoan Hainbat gauz ederki ikasi	Zenbat istorio anekdota Ezin dira erraz ahanzi Egun tristetan bazenekien Malkoak nola erantzi Gure bizitzan izan baituzu Zuk nahikoa garrantzi Maitasun osoz muxu haundi bat Maite zaitugu AMATXI.
--	---

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Juan Bautista eta Josetxo URROZ EZKURRA



Gogorra da onartzea,
gehiago ez
zaituztegu ikusiko,
baina bizi garen artean,
ez zaituztegu ahaztuko.



1942/05/22-2010/03/20
X. urteurrena

1937/04/20-2019/02/19
I. urteurrena

ZUEN FAMILIA

Euren aldeko meza martxoaren 22an, 12:30ean, Berako San Esteban Elizan

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

 **BAZTAN BIDASOA**
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiaga kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokia
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

HERIOTZAK

- **Joakina Ibarra Mariezkurrena**, Elgorriagakoa, otsailaren 26an, 88 urte zituela.
- **Saturnina Salaberria Zubiri**, Goizuetakoa, otsailaren 26an, 80 urte zituela.
- **Josefa Apeztegia Petirena**, Sunbillakoa, otsailaren 27an, 96 urte zituela.
- **Ignacia Etxezarreta Eizagirre**, Leitzakoa, martxoaren 1ean, 98 urte zituela.
- **Asuncion Irigoien Askobereta**, Zigakoa, martxoaren 1ean, 92 urte zituela.
- **Bartolome Etxaide Goñi**, Zigakoa, martxoaren 2an, 86 urte zituela.
- **Dolores Burgete Alzuri**, Arantzakoa, martxoaren 2an, 98 urte zituela.
- **Agustin Migeltorena Arraztoa**, Berroetakoa, martxoaren 3an, 81 urte zituela.
- **Rafael Zabala Gonzalez**, Doneztebekoa, martxoaren 3an, 52 urte zituela.
- **Mari Migeltorena Etxandi**, Arraiozkoa, martxoaren 4an, 70 urte zituela.
- **Andres Perurena Caballero**, Leitzakoa, martxoaren 4an, 84 urte zituela.
- **Maria Josefa Iñarrea Bikondo**, Erratzukoa, martxoaren 4an, 96 urte zituela.
- **Tomas Belzunegi Arizmedi**, Elizondokoa, martxoaren 4an, 69 urte zituela.
- **Luis Maria Bru Lopez de Sabando**, Berakoa, martxoaren 8an, 77 urte zituela.
- **Sabino Irigoien Bikondoa**, Gartzaingoa, martxoaren 8an, 89 urte zituela.
- **Maria Flora Loiarde Jaunarena**, Zubietakoa, martxoaren 10ean, 77 urte zituela.
- **Fernando Arraztoa Etxartea**, Elizondokoa, martxoaren 11n.

EZKONTZAK

- **Germain Gendrou** eta **Cyrile Conseil-Teilland**, otsailaren 29an Saran.

SORTZEAK

- **Enea Iturralde Etxeberria**, Berroetakoa, urtarrilaren 28an.
- **Idoia Irazoki Goñi**, Berakoa, otsailaren 25ean.
- **Kiara Andiarena Mindegia**, Doneztebekoa, otsailaren 25ean.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du. Nahiago duenak Whatsapez ere idatz dezake: 744 48 43 61.



Lesakako **Unax Maia Larralde** 2 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak familia guztiaren partetik eta batez ere Jare eta Endararen partetik!!



Zorionak **Jagoba**! Martxoaren 7an urteak bete dituzu. Muxu handi bat.



Zorionak **Beñat**! Martxoaren 22an 8 urte beteko dituzu. Egun ederra pasako dugu elkarrekin. Aupa zu!



Zorionak **Fermin**! Zerunetako familiaren partetik besarkada eta muxu handi bat!



Milagros Irazoki sunbildarrari aunitz urtez, izeba!! Zure 85.urtebetetzean, segi beti bezain alai! Muxu handi bat Urdazubiko Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Luken Laurnagarai Perotxenak eta **Saioa Perotxena Danborienak** 3 eta 12 urte bete dituzte martxoaren 8an eta 16an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Leitzako **Egoi Bidart Zabaletak** martxoaren 16an 11 urte bete ditu. Zorionak txapeldun! Segi orain arte bezain jator eta eman *egurre* pilotari. Osaba eta Maitane.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko dugu webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz 0,65 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia.
- (4) ERRAN.EUSEN bitartez.

PLAZAN BAZAN



ARRAIN-SALTZAILEAK


Bi arrandegi hauetako saltzaile bakoitzak badu besteak ez daukan zerbait erakusmahaietan. Zeintzuk dira bi elementu horiek?



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, MARTXO hitza osatzen duten hizkiak (M, A, R, T, X eta O) idatzita. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



ITZALA

Zein da zakur pixontziaren itzal zuzena?



Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

753

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Haurrendako kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.eus



2 sarrera helduentzat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK

www.mendukilo.com



2 sarrera

LI BU RU AK



- BiziPoza
- Sentitu, pentsatu, ekin!
- Sukaldean

Katxi porreta

www.katxi porreta.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.baztanescaperoom.com



www.galaxypark.eus